

# 9

## Hamar ondorio, gazi eta gozo

**Mikel Zalbide**

*Euskaltzaina*

zalbide@hotmail.com

Sarrera-data: 2011-09-15 | Onartze-data: 2011-10-30

**Laburpena.** Oinarrizko txostenari eginiko zazpi iruzkinen egileei erantzuten dio Mikel Zalbidek artikulu honetan, zazpiei banan-banan erantzun ordez, “iritzi-emaile gehienek egindako oharretan zentratuta”. Beraz, bere erantzuna honako gaien inguruan josi du: diglosiari buruz jardutearen egokitasuna, adostasun terminologikoaren beharra, diglosiaren definizioak, Euskal Herrian gaur egun diglosiarik dagoen edota gero eta txikiagoa ote den eta euskararen iraupen-iturri izan daitekeen ala ez. Gainera, saio osoaren irakurketa egin du Mikelek, amaiera–ohar horietan XXI. mende–hasiera korapilatsu honen inguruko azken gogoeta bat eskainiz. • **Hitz-gakoak:** *diglosia, lexikoa, polisemia, konpartimentazio soziofuntzionala*.

**Abstract. Ten bitter-sweet conclusions.** In this article Mikel Zalbide responds to the authors of seven critiques made on his basic report, by “focusing on the comments made by most of the reviewers” rather than responding to each of the seven in turn. So his reply deals with the following subjects: the appropriateness of discussing diglossia, the need for terminological agreement, the definitions of diglossia, whether diglossia exists in the Basque Country today or whether it is diminishing, and whether it could provide a means for the survival of Basque. Furthermore, Mikel interprets the whole essay by offering in his concluding remarks a final reflection on this complicated turn of the 21<sup>st</sup> century. • **Key Words:** *diglossia, lexical, polysemy, sociofunctional compartmentalisation*.

Ohorea da, hizkuntza-soziologiaren alorrean ari garenontzat ohore handia, diglosiari buruzko azalpen-txosten monografikoa egin, hainbat adituren esku jarri, beren kritika-oharrak jaso eta hausnartu, erantzuna eman eta, azkenik, joan-etorri osoa jendaurrean agertzea. Eskerrak ematen dizkiot Soziolinguistika Klusterrari, lehenik eta behin, ibilbide horretarako aukera eskuzabalik eskaini didalako. Eta eskerrak ematen dizkiet ohargileei, banan-banan eta hutsik egin gabe, beren iritziak argiro azaldu izanagatik. Ezagunak ditugu zazpiak: luzaz eta oparo erakutsia digute beren jakitea mintzajardunaren gizarte-moldaerari dagozkion gorabeheretan. Ez dakit, aldiz, zazpiek egin duten esfortzuaren kitagarri duin izango den nire erantzun hau. Arreta handiz irakurri ditut iritzi-azalpenak. Lana eman dit hainbat balioespenen hausnarketak eta, bereziki, ez zait nahi bezain erraza getatu ohar horiek piztu didaten sentiera argiro (dezakedan argien) adieraztea. Hots, ez dakit iritsiko naizen *behar nuien gradora*. Irakurleak du hitza.

Lerro-kopuru mugatua izan dute iritzi-emaileek eskueran, beren ondorio-azalpenak, juzkuak eta balioespenak eskaintzeko. Lerro-kopuru mugatua dut nik ere, hainbatean zabaltzen utzi zaidan arren, erantzun-idazkia prestatzeko. Luzaz jardungo nukeen balioespen horien gibel-erraiak xehekiro aztertzen: alditan txalotzen eta alditan matizatzen edo, errespetuz, arbuiatzen. Ezin da ordea: mugak muga dira, beti eta nonahi. Labur bilduz jardungo dut beraz. Laburtzeko orduan, jakina, irizpide bertsuak aplikatu nahi nituzke iritzi-emaile guztiekin: hurbilago sentitzen naizenekin eta urrunago antzeman ditudanekin. Begirune-kontu formalaz gainera bada horren aldeko motibo argirik: inork ez du frogatu orain arte, dakidala, urrunagoko posiziotik egindako kritikak hurbilagokotik egindakoak baino ikasbide meharragoa duenik.

Gauza bat dago, guztiarekin, argi. Iritzi-emate batzuk muin-muinekoak izan dira eta beste batzuk periferikoago. Kritikagile batzuek eztabaidaren muinera, diglosiaren zer-nolakora eta zertarakora, jo dute. Diglosiaren inguruko zehaztapen eta ikuspegi alternatibo baliosik eskaini dute horrela, azalpen-txostenean esandakoei osagarritzko edo kontrakarrereko argibide jakingarriak erantsiz. Muin-muineko ohar horiei erantzungo diet nagusiki hitzondo honetan. Diglosiaren muinetik urrunago zentratu nahiago izan du aldiz zenbait iritzi-emailek, gaurko eztabaidagaitik gutxi-asko urrunduz. Eskubide osoa du halakok horrela jokatzeko: muin-muineko oharrak nahiago ditugularik ere, begirunez hartzen dira besteok<sup>1</sup> Irakurri dugu, azkenik, lekuz eta neurritz gaurko aztergaiaren esparrutik kanpora dagoen juzku-irizpenen bat edo beste. Ez gara inorekin mokoka jardutera etorri, dakigun apurretik abiatuz teoria-asmozko kontzeptu-lanketa apalean saiatzera baizik. Bego hortaz bere horretan, eran-

**Ikus dezagun  
nostalgia-kontu  
hutsa den, ala ez,  
hemen eta orain  
diglosiaz  
jardutea. Auzia  
erabakitzeko,  
nolanahi ere,  
nostalgia zer den  
argitu beharko  
dugu lehenik.  
Maisu handiaren  
eskutik bat  
nentorke ni ere,  
oro har, John H.  
Plumb-en  
deskribapen  
zorrotzarekin.**

tzunik gabe, kontzeptu-lanketatik baino sorgin-ehizetik hurbilago dagoena. Eskubidea ez ezik eginbidea ere badugu horrela jokatzeko: hori zor diogu BAT aldizkariari, hasteko, eta hori exijituko digute ezinbestean, arrazoi osoz, irakurle gehienek. Gatozen beraz harira.

Erantzuna nola antolatu? Zazpi iritzi-emaile direnez guztira, zazpiei banan-banan erantzutea da aukera bat. Hartu erantzuleak banaka, deitura-izenen ordena alfabetikoaz adibidez, eta bakoitzaren kritika-oharrak puntuz puntu landu. Ez da hain modu aldrebesa: esaera zaharrak dioenez “nori berea da gizalegea”. Badu ordea bide horrek, abantaila argiaren ondoan, nekez gainditu litekeen eragozpenik ere. Lehenengo bizpahiru iritzi-emailei emandako erantzunekin baterik legoke gainerakoei esan beharreko gehiena. Hori baino begirunezkoago delakoan, beste bide honi helduko diot: iritzi-emaile gehienek (edo zenbaitek, berariaz sakon) egindako oharretan zentratzea. Ezarritako luzera-muga errazago errespetatzea espero dut horrela, eta irakurlea alferrikako errepikapenez gutxiago aspertzea.

## **1. DIGLOSIAS JARDUTEA EZ OTE DA, HEMEN ETA ORAIN, NOSTALGIA-SAIIO HUTS?**

**I** Iritzi-emaile batek baino gehiagok, aurrez aurre edo zeharka, azaldu du horren kezka edo ustea<sup>2</sup> Baliteke hala izatea, nik besterik sinestu arren. Emaiogun beraz begiratu, axalekoa izango bada ere. Ikus dezagun nostalgia-kontu hutsa den, ala ez, hemen eta orain diglosiaz jardutea. Auzia erabakitzeko, nolanahi ere, *nostalgia* zer den argitu beharko dugu lehenik. Maisu handiaren eskutik bat nentorke ni ere, oro har, John H. Plumb-en deskribapen zorrotzarekin<sup>3</sup>: atzera begirako jarrera da nostalgia, unean uneko errealitatearekin eten nahia eta, horrenbestez, jokaera irrazionala. Irrazionala eta, aurrera begira, irismen laburrekoa eta garrantzi handirik gabea. Negarraldi hutsala konotatzen du nostalgiak: ilunabarra pasa ondoren ilunabar-egarriz eta miresmen-irrika erromantikoz jardutea. Jokaera praktikoa eta intelektual antzua, zuhaitza eta bere itzala nahasi nahia, aspaldi joandako eta ahanzte hobe dugun kontu xaharren gorrazarretan denbora alferrik galtzea.

*Nostalgia* hitzak testuinguru honetan hori (edo horren antzeko zerbait) esan nahi duela uste badugu, gatozen gurera: nostalgiazko saioa al da diglosiaz jardutea Euskal herrian, 2011. urtean? Zer diote zazpi kritikagileek? Guztiek ez dute halakorik esan; gehienek ere ez. Uste-susmo hori jaso da ordea batzuen lumatik: bai, nostalgiazko saioa da oraingo hau. Lehen ez (lehen ezer gutxi zuen diglosiak nostalgikotik), baina orain bai. Gure (eta beste askoren) ezaugarri argia izana da diglosia, baina joandako

kontuak dira horiek. Orain ezin da horrelako moldaera soziolinguistikorik eratu, hala egin nahi izango bagenu ere. Ezinezkoa da hori, bereziki, modernitateak ekarri digun gizarte-moldaera berriak berekin dituen lehen ez bezalako baldintza-ezaugarri sendoengatik.

Demagun hori dela gure (eta han-hemengo) kritikagileen erreparoa nagusia. Zein dira baldintza-ezaugarri sendo horiek, gaur-biharretako diglosia ezinezkotzen dutenak eta, beraz, horretaz hitz egitea *nostalgia-saio* huts bihurtzen digutenak? Zehaztasun erabatekorik ez dugu aurkitu ohargileen iritzi-azalpenetan. Agertu da ordea, han-hemen, ardatz nagusiaren berri eman dezakeen ohar funtsezkorik. Iturri bitako urak elkartu dira, oker ez banago, baldintza-ezaugarri horien formulazioan: batetik, gizarte modernoak ohiko konpartimentazio-moldeak apurtzeko duen berezko joera eta lehen ez bezalako ahalmena; bestetik, diglosiazko gizarte-egoera tradizionala hiztun-elkarte modernoan etorkizun desiragarriarekin ezin uztartua. Ikusi ditzagun biak, hurrenez hurren, eta saia gaitzen beren argi-itzalak zehazten.

a) *Ohiko konpartimentazio-moldeak apurtzeko joera eta lehen ez bezalako ahalmena du, berez, gizarte modernoak.* XIX. mendetik honanzko irudimen soziologikoak behin eta berriro azaleratu duen *factum* ukalezina daukagu, bistan da, esaldi horren oinarrian. Modernizazio sozialak berekin dakar han-hemen, besteren artean, ordura arte funtsezkoak izanikako langa-hesi asko haustea. Haustea edota, gutxienez, statuszein rol-moldaera berreginen arauz iragazkor(rago) bihurtzea. Guztio bat gentozkeen (neu, nolana ere, bat natorren) gertakari soziologiko ezaguna da hori<sup>4</sup> Ez dago hor, beraz, funtsezko desadostasunik. Gertaera ezagun horretatik eratoritzen diren ondorioetan daude, hor bai, aldeak. Modernitatearen ondorio sozial horrek zera erakusten du ene ustez: lehen baino zailagoa dela orain, oro har, eskala txikiko eraikin etnokulturalen eguneroko bizimodu beregaina, belaunez belaueneko iraupen-aukera eta gizaldiz gizaldiko garapen-bidea. Gero eta zailagoa da aukera-bide hori autorregulazio politiko-operatibo ohargarria duten entitate etnokultural “txiki”entzat<sup>5</sup> Eta arras zaila da hori, bereziki, aurreko horiek baino autorregulazio-ahalmen nabarmenki murriztagoa dugun hiztun-herri ahulduontzat<sup>6</sup> Gertakari hau edo hori (arras) zaila izatea gauza bat da ordea, eta ezinezkoa izatea bestea. Errazegi ematen du zenbaitek, gure artean, bigarren pauso hori: hor dago arazoa<sup>7</sup> Gizarte-berrikuntzaren ondorio lineal hutsean finkatu ordez eragile eta irtenbide posibleen abaniko osoa hartu behar da kontuan, diglosia hemendik aurrera ezinezkoa dela

---

**Ohiko  
konpartimentazio  
-moldeak  
apurtzeko joera  
eta lehen ez  
bezalako  
ahalmena du,  
berez, gizarte  
modernoak. XIX.  
mendetik  
honanzko  
irudimen  
soziologikoak  
behin eta berriro  
azaleratu duen  
factum ukaezina  
daukagu.**

formulatu gabe *a priori*. Hala eskatzen du zuhurtziak eta hori gomendatzen du, bereziki, gai horretaz dagoen bibliografia zientifiko landuenak (datu-kontrastez hornituenak eta onarpen akademikoz ez ahulenak): gurea bezalako hiztun-herri txiki modernizatuen garapen-bideak (gainerako hiztun-herri ahulduenak bezala) diglosia-molderen bat ezinbestekoa duela dio, aldez edo moldez, bibliografia horrek (ikus azalpen-txostena). Egia da ohiko konpartimentazio-moldeak apurtzeko joera eta lehen ez bezalako ahalmena duela gizarte modernoak. Ez da egia, aldiz, ahalmen hori ahalguztiduna denik. Ez da egia, horrela, ohiko sozializazio-gune primarioak (etxea eta familia, auzoa eta kalea, lagunartea eta hurbileko bizimoldea) ezabatu egin dituenik zeharo gizarte modernoak. Lehen baino panorama inhospitua ekarri du modernitateak sozializazio-gune horietara: egia da hori. Baina orain gutxira arte mintzajardunaren eta ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen-gune nagusi izandako *etxe-auzo-lagunarte* konplexua ez du, bistan denez, osorik desegin. Konplexu horrek (ez internetek eta ez zenbait IKTk) bihurtzen ditu 2011n ere Soriako haurrak<sup>8</sup> gaztelaniazko hiztun, Wipperführt-ekoak *deutschsprachige Kinder* eta Oportoko neska-mutilak *falantes de portugues*. Bizirik dago horietan belaunez belauneko ama-hizkuntzaren transmisio-bide arrunta, ingelesa jaun eta jabe den ehun kanaletik gorako telebista-aukeren eta internet-sare aberatsaren garai supraetniko honetan ere. D ereduko haur askok erdaraz egiten badu hain sarri, hamar bat urtetik aurrera bereziki, hurbileko *etxe-auzo-lagunarte* horren faltagatik edo ahuldadeagatik da maizenik, ez erdal telebistaren eta interneten eragin ukaezinagatik<sup>9</sup> Konpartimentazio-hausle edo ahultzaile handia da modernitatea. Handien alde eta txikien kontra dator, nagusiki, bere indar-proiekzioa. Guztia ez dago, ordea, bere esku.

**b) Diglosiazko gizarte-egoera ezin da uztartu hiztun-elkarte modernoan etorkizun desiragarriarekin.** Europako hiztun-elkarte gehienek, 1800etik hona, elkarte barruko eta elkarte arteko formulazio diglosikoa ezabatzeraz (eta horren ordez, ahal delarik, kanpo- eta barne-diglosiarik gabeko eramoldea indartzera) jo dute oro har. L asko eta H gutxi zituen Europa preindustrialek (H+L)dun “nazio-hizkuntza orotarako” ugari duen kontinentera pasa argiro. Aspaldi<sup>10</sup> erakutsia du hori, bidenabar bada ere, Karl W. Deutsch-ek. Mende-erdi luzea pasa da ordutik eta, dakidala, inor gutxik egin dio bere baieztapenari aurre. Idatzizko jardunerako gai diren eta nazio-hizkuntza gisa diharduten “orotarako mintzaira” europarren kopuruak gora egin du nabarmen: “In the hundred years between 1800 and 1900, the number of full-

fledged national languages in Europe increased from 16 to 30, that is, at a faster rate than in any of the preceding ten centuries. And in the 37 years between 1900 and 1937, Europe's standard languages further multiplied to 53". (Deutsch, 1942 (erabilitako iturria 1968): 599-600). Hots, hiztun-herri bakoitzaren adierazbehar guztiak hizkuntza bakarraz asebetetzeko bidea hobetsi da han-hemen, zenbait erresumatan lehendik indartuz zetorren joera zabalduz, 1800etik hona. Salbuespenik falta ez bada ere tartean (Suitza-Belgika-Luxemburgo batetik, Norvegia bestetik) bide hori hartu du hartarako gai izan den hiztun-herri europar askok: itxuraz gehienek<sup>11</sup> Europako arau eta eredu bihurtu da, hainbatean, bilakaera glotopolitiko hori: lurralde-soberaniazko estatu beregainen eta lekuan lekuko nazio-hizkuntza bakarren<sup>12</sup> arteko biunibokotasunean eraikitako arau-eredua. Ezaguna dugu ondoko pentsabidea: "Portugalen portugesez egiten bada, Italian italianoz eta Alemanian alemanez, normaltasun-paradigmak horixe bera eskatzen digu: Euskal herrian euskaraz. Auzo-herri beregain bakoitzak hizkuntza bakarrarekin aski baldin badu bere espazio demoterritorial eta soziofuntzional osoan, zergatik ez dugu guk gauza bera egin behar etxean? Hala egitekotan, berriz, zertarako (denboraz eta espazio fisikoz) gero eta urrutiago gelditzen ari zaigun diglosiaren bila hasi, elebakartasun gardena hain erakargarri dugularik etxeondoan?" Ez du inork hitzez hitz, dakidalarik, aurreko pasarte horretan esandakorik idatzi bere kritika-oharretan. Ikuspegi horren oihartzuna ezin argiago agertu da ordea, alde edo moldez, *nostalgia* kontua astindu duten ohargileen artean.

Egia da: "normaltasun"-paradigma hori gaizki, oso gaizki uztartzen da diglosiarekin. Hiztun-elkarte moderno europarren etorkizun desiragarriarekin nekez uztartzen da diglosiazko gizarte-egoera, eta hiztun-elkarte moderno europarrak ditugu guk, ezer izatekotan, eredu. Gatozen beraz mamira: egia al da, hasteko, eramolde diglosikoak gesalduz edo birrinduz indartu eta zabaldu egin direla European, 1800etik hona, elebakartasun territorialeko moldaerak? Bai: egia da hori. Karl W. Deutsch-en azalpenak ez dira, xehetasunak gora-behera, batere okerrak<sup>13</sup> Azken berrehun urtean zer gertatu den argi dagoelarik gatozen hurrengo puntura: zer ari da azken hamarkadotan gertatzen eta orain bertan, egunetik egunera, zer joera ari da gailentzen? 1800etik 1950 ingurura arteko joera hura al da European, orain ere, gidari? Hura al da egungo joera nagusia eta aurrera begirako bide-urratzailea? Azken kontu hori ez dago hain garbi. Luze-zabaleko erabilerari dagokionez aurrera egin du 1800etik honako

**Hiztun-herri  
bakoitzaren  
adierazbehar  
guztiak hizkuntza  
bakarraz  
asebetetzeko  
bidea hobetsi da  
han-hemen,  
zenbait  
erresumatan  
lehendik indartuz  
zectorren joera  
zabalduz,  
1800etik hona.  
Salbuespenik  
falta ez bada ere  
tardean (Suitza-  
Belgika-Luxemburgo  
batetik, Norvegia  
bestetik) bide  
hori hartu du  
hartarako gai  
izan den hiztun-  
herri europar  
askok.**

joerak, batetik, gure artean eta ahuldutako hiztun-herririk duen beste hainbat estatu europar “handi”tan<sup>14</sup> Aurrera egin du eta, prognosien ezinbesteko ahuldadeez jabeturik ere, aurrera egiten segitzeko trazak ditu. Beste zenbait ingurumenetan, aldiz, kontrakoa ari da gertatzen. Azken 30 urteotako joera, estatu beregaina duten Europako hiztun-elkarte txiki edo txiki-ertainen artean bereziki, alderantzikoa da oro har: “Orotarako nazio-hizkuntza” izatera iritsitako mintzairak orotarako izateari uzten hasi dira han, estatu-esparru propioan alegia. Horrelako hainbat hiztun-elkartek ez du aski bere hizkuntzarekin, hiztun-elkarte horren adierazbehar guztiak asetzeko. Hizkuntza osagarri batez (gero eta maizago ingelesaz) baliatzen dira halakoak, gogoz edo ezinbestean. Herbeheretan eta Eskandinavia osoan, baita Erdi Europan ere, *additional language* izaera eskuratua du ingelesak dagoeneko<sup>15</sup> eta, leku jakinetan, belaunez belaun berresten (are indartzen) ari da. Aldi berean ari dira azken diglosia-apurrak nonahi galtzen eta diglosia-molde berrien printzak han-hemen abiatzen. Aldi bereko fenomenoak dira eta, bistan denez, bata (bigarrena) bestea baino berriago dugu<sup>16</sup> Elebakartasun territorial osabetezkoaren eredu hartatik urruntzen hasi da beraz Europako hainbat herrialde, azken hamarkadotan. Horiek baino herrialde handi bateratuagoak ere, beste erritmoz eta beste garantia-bermez, dibertsifikazio-bidean barrena abiatu dira. Konpartimentazio soziofuntzional berrien bidetik ere badoa hortaz Europa, ez 1800eko ereduaren garapen hutsetik. Xaharkituriko eredu nostalgikoa ez baina berritasun-haziaz ereindako soro-zelaia da, alde horretatik, diglosiarena. Ez diglosia zahar tradizionalaren errepika mimetiko. Bai, ordea, hizkuntza biz edo gehiagoz baliatzen den gizajende-sail ohargarrien gizarte-moldaera berri eta, hein batez, multiformea. Diglosiaz jardutea ez da, horregatik, hemen (Europan) eta orain (XXI. mendean) nostalgia-saio huts. Hitza bera erabat gal baledi ere bihar edo etzi, eta badago halakorik susmatzeko motiborik, altzoan daraman kontzeptua modernoa da zinez. Ez dago hor nostalgian aztarren handirik.

## **2. MEREZI AL DU ADOSTASUN TERMINOLOGIKOAN SAIATZEAK?**

**I**

Erantzun kontrajarriak jaso ditu puntu honek. Alde dago, erabat alde, zenbait ohargile; kontra dago aldiz, edo ez dago bereziki alde, beste zenbait. Xabier Isasi eta Paula Kasares izan dira, oker ez banago, adostasun terminologikoaren bilaketa-saioa begi hobereenez ikusi dutenak. Paularen esanean “edozein jakintza arlok garbi eta zehatzak behar ditu erabiltzen dituen kontzeptuak iritzi-trukean aritzen garenok elkarri ulertuko badiogu

eta eztabaida zientifikoan, eta ez burutapen lauso eta antzuetan, ariko (ez) bagara”. Are urrunago joan da Xabier Isasi, ikuspegi hori espresuki berrestez gainera, bere *desideratum*-ean: “diglosiaren ulerkera nolakoa den jakitea arazoa da, bai, baina, problema handiagoa da, gure ustez, adituek soziolinguistika jakintza-alorreko objektu berdinak izendatzeko termino diferenteak erabiltzea”. Batak zein besteak garrantzi handia ematen diote, nolahi ere, terminologiaren alorreko adostasun-bilaketa horri<sup>17</sup>.

Kontra agertu zaigu Julen Arexolaleiba: bere ustez ziaboga terminologiko asko egin da diglosiaren alorrean, han-hemen, eta ez du balio ziaboga batzuek ontzat ematea eta besteak ez. Gustu kontua omen da, horrenbestez, batek ardo txokolatearekin nahasten duela, eta besteak ez, esatea. Horrela al dira kontuak? Hizkuntza-soziologiaren alorrean ere bibliografia tekniko eta komunitate zientifiko existitzen diren neurrian, kontu hori ez da nire ustez horrela. Definizio batzuek harrera zabala (izan) dute komunitate horretan, eta beste zenbait ez da (ia) kontuan hartzen. Onartze / ez onartze hori ez da gustu kontu hutsa, Julenek berak beste pasarte batean, mingots baina leial, argi aitortzen duenez. Komunitate zientifikoan (mila xehetasun eta ñabarduraz, baina argiro) indarrean dagoen kontzeptu-markoa ezin dugu hori eta horrenbestez gutxietsi.

Iñaki Martínez de Lunak egin dio terminologiaren puntu honi, nolahi ere, alternatibazko oharrik luzeena. Luzeena eta, aplikazio-esparruaren aldetik, zehaztuena. Bere hitzetan esanik adostasun terminologikoa bilatzen saiatzeko “asmoa ona da, (...) baina posible ote da? (...) termino polisemikoak ohikoak dira gizarte-zientzietan, eta soziolinguistika ez da salbuespen”. Alternatiba hau proposatzen du Iñakik, erdibide gisa: “zergatik ez erabili *diglosia* (...) gure egoera soziolinguistikoa izendatzeko?”. Hiruzpalau ohar erantsi nahi nizkioke Iñakik zentzuz eta tentuz aldeztu duen ikuspegi horri: a) egia da hitz tekniko asko neurri batean edo bestean polisemiko dela. Baina polisemia ez da terminologia teknikoaren ezaugarri bereizlea, justu kontrakoa baizik: hitz-altxor arrunteko hitzen ondoan nabarmenki monosemikoak (hots: hitz-altxor arrunteko elementu lexikalak baino nabarmenki monosemikoago) dira, oro har, termino teknikoak. Lexikologoaren artean aspaldidanik adierazitako baieztapena da hori<sup>18</sup> Bistan da gizarte-zientzien berariazko hitz-altxorra eta Linneoren taxonomia gauza bi direla. Joera nagusia bat da ordea, oinarrizko zenbait ezaugarritan: izen-izanen arteko biunibokotasun nahia da ezaugarri horietariko bat; b) gure arteko diglosia kontuan gertatzen dena ez da polisemia arrunta, arras polisemia berezi eta estremoia baizik: *antinomiazko* erabilera alternatiboa da hemengo arazoa. Diglosiaren erabilera horrek “osasun” (edo “nolabaiteko osasun”) hitzari “gaixotasun” (are “gaixota-

**“Diglosiaren  
ulerkera nolakoa  
den jakitea  
arazoa da, bai,  
baina, problema  
handiagoa da,  
gure ustez,  
adituek  
soziolinguistika  
jakintza-alorreko  
objektu berdinarak  
izendatzeko  
termino  
diferenteak  
erabiltzea”.**

sun larri, hilgarri”) esaten dio. Ezin urrutira joan gaitzeko bide horretatik, Iñakik berak goraxeago argi esan digun moduan “corpus teoriko bat lantzeko asmoa” baldin badugu; c) jakintza-alor horretan diharduten profesionalek, oro har eta azalpen-txostenean adierazi ditugun gorabehera eta eztabaida sakon guztiekin, adiera (multzo) jakin batez darabilte nagusiki *diglosia* hitza. Zer irabazten dugu, hortaz, partez antinomiko huts den definizio alternatiboaz baliatzearekin?; eta d) saiorik egin da munduan, antinomialtzako ez baina banaketa osagarritzako azpimultzo bi terminologikoki bereizteko. Gogoratu azkena: Hudson-en 2001eko *diglosia/biglosia*. Hamar urte pasa dira ordutik hona. Ikusi hamar urteotan *diglosia* hitza zenbat aldiz agertu den ordura arteko adieran, eta zenbat aldiz *diglosia/biglosia* bikote berriaren arabera (hots, Hudson-en banaketa semantiko osagarriaz). Gogoia eta astia izanez gero ikus HABEko liburutegi tekniko goi-mailakoan izendapen-bide batek eta besteak zer arrakasta eta zer hedadura eskuratu duen azken hamarkadan. Bibliografia teknikoaren azterketa sakonean murgil egin nahi ez duenak aski du, aldiz, *Google*-en sartzea. Batean zein bestean proba egin dudalarik argia da erantzuna: *biglosiak* ez du, Hudson-ek 2001ean esandako moduan (hots, *exodiglosia* adierazteko), aparteko lekurik irabazi bibliografia teknikoan. Berak lortu ez duena nekezago eskuratuko dugu guk. Komunitate zientifikoak bere arauak ditu eta komunitate hori ez dago, oro har, euskaldunoi zer okurririko zain. Ez dugu euskaldunok hain fama txarra mundu zabaleko soziolinguista adituen artean, behin baino gehiagotan ikustea suertatzen denez. Guganako begiruneak eta ongi nahiak ez ditu ordea atzerriko adituak, hori eta horrenbestez, beren konstruktua teoriko nagusiak eta kontzeptu-sare osoa birmoldatzera eta gure gustura jartzera eramaten. Aurreantzean ere nekez makurtuko dira horretara, non eta euskaldunok eduki-kontzeptuzko ekarpen soziolinguistikoko funtsezkorik egiten ez dugun<sup>19</sup> Hobe dugu beraz, ene ustez, terminologiazko adiera kontuan besteren arrastora hurbildu eta konstruktua teorikoen zein ebidentzia enpiriko egituratuen alorrean, apalik baina gogotsu, dezakegun ekarpenik baliagarrienak eskaini. Bihurtzekotan horrek, ez bestek, bihurtuko ditu gure aukera terminologikoak erakargarri. Ez dira seguru asko Iñakiren arrazoiak arrazoi gabeko, behar-aukera pragmatiko batzuen aldetik. Litekeena da behar-aukera horiei kasu egin behar izatea inoiz edo behin. Gauza batzuk (Paula Kasaresek hain argi azaldu duen kontzeptu teknikoaren irizitrukerako eta eztabaida zientifikorako ulergarritasun-baldintza, bereziki) ezinbestekoak dira ordea, gurean ere: etxean zapatillatan ibiltzeko euskal terminologia soziolinguistikoko lauso eta inoiz, kasu honetan bezala, kontzeptualki antonimikoak ez digu balio. Esker txarreko lana da, bistan de-

nez, adostasun-bilaketa oro: lagun gutxi eta etsai askotxo egiteko arrisku bizia duena. Arrisku horixe da, ondo ulertu badiot, Iñakik ebitatu nahi lukeena. Hori guztia horrela izanik ere merezi du, tentuz eta begirunez, adostasun terminologikoan saiatzea.

### 3. MEREZI IZAN AL DU SAIOAK, ORO HAR?

Alde bitara banatu dira, honetan ere, ohargileen irizpen-urak. Gehienak alde agertu direlakoan nago: bidenabar batzuek eta esplizituki zenbait. Esplizituki alde agertu direnen artean gogoan hartzekoa da Iñaki Martínez de Lunaren formulazioa: “gure (...) burugogorkeria eta intrantsigentzia kulturaletik ateratzeko ahalegin xumea da saio hau. (...) ekarpen xume bat izan daiteke zurruntasun kultural hori beratzen, biguntzen eta iraultzen has gaitezen”. Alde dagoela iruditu zait orobat, ikuspegi kritiko batetik, Maria Jose Azurmendi<sup>20</sup>. Alde egonik oro har, azkenik, txosteneko punturen bat (Mitxelenaren pasarte luzetik ateratako ondorioa) lekuz kanpokoa iruditu zaio Paula Kasaresi<sup>21</sup>.

Izan da, aitzitik, gogoeta-saioaren ikuspegi jeneralaren kontra, nabarmen kontra, agertu denik. Julen Arexolaleiba ez dago saioari eman diodan orientazio jeneral horrekin konforme. Argi esan du zergatik: “sailkapen tekniko, akademiko, neutral, ia anglofono soil.. horiek” ez dute asebetetzen. Zehatz adierazi du, orobat, desadostasun horren iturria non dagoen: “ez dut uste zientzia soziolinguistikoko objektiborik egin litekeenik”. Zaila da, seguru asko, argitze-saio honen orientazio nagusiari antipoda zorrotzagorik ezartzea. Esan nahi duena gaizki jaso ez badut objektibotasunik gabeko zientzia-esparru batean jardutera kondenaturik gaude hiztun-elkarteen gizarte-moldaeraz informazio zehatz eta eragingarririk eskuratu nahi dugunok. Interesa eta objektibotasuna (gizakion doai diren gogo-nahia eta egia-egarria) ezin dira uztartu. Bata *ala* bestea aukeratu beharra planteatzen digu Julenek, objektibotasun-asmoa zeharo erlatibizatuz eta gutxietsiz: objektibotasuna ez da beretzat ez iparra eta ezta helburua ere. Ez nago planteamendu horrekin ados: gizaki garen aldetik, bai eta bere buruari bizirik eutsiz geroaldian proiektatu nahi duen gizatalde baten kide garen heinean, naturala eta arrazoizkoa da gizakiok interesdun izatea. Julen eta biok ez gara interesgabeak. Hizkuntza-soziologiaren bide-urratzaile gehienak ere ez<sup>22</sup>. Ahularen, aniztasunaren eta bizikidetzaren ustez gizatiarrago baten aldeko apustua dago, nabarmen, gutako gehienon filosofia sozialaren oinarrian. Ahularen eta aniztasunaren aldeko “uste-sinesmen-gogo-nahi” horietan oinarritzen gara maiz, hizkuntza-soziologiaren alorrean ari garenok. Horrek ez du esan nahi, ob-

**Labur bilduz, eta jasotako kritika-oharren muinera mugatuz, badirudi bat gentozela guztiok edo gehienok zertzelada hauetan: a) batez ere fenomeno soziala da diglosia (ez, elebitasuna bezala, batez ere atributu indibiduala), b) iraunkorra da hainbatean (zenbaitentzat: iraunkorra izan da orain arte), c) bere-berea du diglosiak konpartimentazio soziofuntzionala, d) bertako H eta L hizkuntzak edo aldaerak ez dira berdin eskuratzen, transmititzen ere ez, eta e) baliteke (adostasunetik urrutiago gaude ordea horretan) diglosia hain gatazka-iturri nabarmen ez izatea.**

jektibotasunari uko egiten diogunik edo uko egiteko prest gaudenik. Interesdun izanik ere egiaren (gustuko edo gustuz kontrako, baina benetako egiaren edo egia-ustezkoaren) bila dihardugu guztiok, zuk ere bai seguru, zientzia-moldez ari garen heinean. Ahul-anitzen aldeko filosofia sozial hori hor dago, baina egiazaletasuna ere bai. Batak ez du bestea zapuzten, objektibotasunari bere osoan eta bere lekuan eusten dakigun neurrian. “Inolako interesik gabe” diharduela dioenaz, *value-free* moduko zientzia egiten duela esaten duen arima erratuaz, ez naiz ni batere fio: bat nator horretan Julen Arexolaleibarekin. Gauza bat da ordea nork geure interesak izatea eta interes horiek gizalegez aldezen saiatzea eta bestea, erro-errotik bestea, zientzia-bilaketan ari garelarik objektibotasuna alboratu eta gure bilatze-lan hori alde zurretiko interes-jomuga jakinen mendeko otxan bihurtzea. Ezin alboratuzkoa dugu objektibotasuna.

#### 4. KONFORME AL GAUDE AZALPEN-SAIOAN DIGLOSIAN EMAN DEN DEFINIZIOAREKIN?

I  
Azalpen-txostenean bost ezaugarri atxiki zaizkio diglosiari, gure arteko zenbait gaizkiulertu onbideratu nahirik. Konforme agertu al dira ohargileak definizio boskoitz horrekin? Konforme agertu al dira oro har, diglosia prototipikoaz emandako definizio globalarekin, eta konforme bere xehe-tasunetan, ezaugarri ezaugarri, egindako konkretzioekin? Behin eta berriro irakurri ditudalarik zazpi erantzunak, ondorio bikoitz honetara iritsi naiz. Aski konforme, espero nuen baino konformeago, agertu dira ohargileak definizio globalarekin. Ez dut horren kontrako azalpen handirik irakurri, eta aldekorik bai: Joxe Manuel Odriozola batetik<sup>23</sup>, eta Lionel Joly bestetik<sup>24</sup>, izan dira horretan esplizituenak. Berria da adostasun-giro hori gure artean, oker ez banago: hurbilketa terminologiko-kontzeptual baterako oinarria eskain dezake adostasun global horrek.

Aldiz matiz-ñabardura argirik eta, inoiz, kontrajartze zorrotzik agertu da ohargileen puntuz puntuko analisisetan. Ezaugarri batzuen inguruan kritika-ohar gehiago agertu da, besteetan gutxiago eta zenbaitetan batere ez. Horrela, eta labur bilduz, a) ohargileentzat ere *gertaera soziala da diglosia, nagusiki, ez atributu indibiduala*: inork ez du, dakidala, ezaugarri hori auzitan jarri; b) *iraunkorra da diglosia: hainbatean, egonkorra*. Orain arteko diglosiaz ari garelarik bat etorri dira ohargileak iraunkortasun (beti erlatibo eta ezinbestean mugatu, baina ukaezin) horrekin. Egungo edo geroko diglosiaz jarduterakoan, aldiz, dudamudak agertu dira zenbaitengan eta, gero ikusiko denez, kontrako iritzi argirik agertu da inoiz; c) *Ez dago diglosiarik, konpartimentazio soziofuntzionalik gabe*: erabateko adostasuna su-

matu dut puntu zentral horretan. Garrantzitsua da, nire ustez, adostasun hori; d) *diglosia-giroan bizi den hiztun-elkartean, H eta L ez dira berdin eskuratzzen; transmititu ere ez*. Honetan ere ez da kontrako ohar-iruzkin handirik jaso; eta e) *Diglosia ez da gatazka-iturri nabarmen*. Honetan ere konforme agertu da antza (kontrako iritzirik ez du behintzat eman) hainbat ohargile. Izan da, ordea, puntu hori auzitan jarri duenik. Dudazko deritzo Lionel Jolyk bosgarren ezaugarri horri. Bere kritika-oharreko hainbat baieztapen, diglosia kontzeptua gizarte-giro jakinean sortua eta horrela kontuan hartzekoa dela dioena bereziki, zuzena da. Argigarria da orobat, eta niretzat berria, Lionelek, gizarte-psikologian oinarriturik eta Moscovici hartuz bidaide, gizarte-giroaren ulerkera biez dioena. Ez nator bat Boyer-en eta beste zenbaiten estatizismo-kritikarekin (Lionel ere apenas, ondoko oin-oharreen ikus litekeenez), ez eta suitzar diglosiaren inguruko alienazio kontuarekin<sup>25</sup> Bistan da bat gatozela funtsezko puntu gehienetan. Bere hitzetan esanik “aurreneko lau puntuak argiak badira azken puntua, gatazkarena, hain argia ez da”. Argitasun falta horrek ez du Lionel beste punta-muturrera eramane: “maila praktikoan, (...) hizkuntza gutxitua nola biziraun zehazteko, badirudi Iparramerikarren eredu klasikoak tresna gehiago ematen duela gatazkatsuenak baino”. Esan dezagun hortaz, ondorio gisa, argitasun gehiagoren beharrean dagoela gatazka bai/ez kontua.

Labur bilduz, eta jasotako kritika-oharren muinera mugatuz, badirudi bat gentozela guztiok edo gehienok zertzelada hauetan: a) batez ere fenomeno soziala da diglosia (ez, elebitasuna bezala, batez ere atributu indibiduala), b) iraunkorra da hainbatean (zenbaitentzat: iraunkorra izan da *orain arte*), c) bere-berea du diglosiak konpartimentazio soziofuntzionala, d) bertako H eta L hizkuntzak edo aldaerak ez dira berdin eskuratzzen, transmititzen ere ez, eta e) baliteke (adostasunetik urrutiago gaude ordea horretan) diglosia hain gatazka-iturri nabarmen ez izatea. Zaila da zortzi buru-aburu bospasei lerroko esaldira biltzea. Are zailagoa, jakina, zortzi buruotako bat norberarena denean. Irakurleak esan beza orekari eutsi diodan sintesi-saio ezin laburrago honetan ala, besterik aldarrikatu arren, urak neure errotara eramane-zaleegi agertu naizen.

## 5. IA BATERE DIGLOSIARIK GABE GELDITU AL GARA? GERO ETA DIGLOSIA TXIKIAGOA AL DUGU?

Exodiglosiaz ari izan gara gaurkoan, eta muga-esparru horretan ulertu behar da galdera-parea: euskara-gaztelanien (iparraldean euskara-frantsesen) artean dagoen edo ez dagoen diglosiaz ari gara. Ez dugu hitzik esan, aitzitik, endodiglosiaz: ez zaharraz<sup>26</sup> eta ez berriagoaz (euskara ba-

**Exodiglosiaz ari izan gara gaurkoan, eta muga-esparru horretan ulertu behar da galdera-para: euskara-gaztelanien (iparraldean euskara-frantsesen) artean dagoen edo ez dagoen diglosiaz ari gara. Ez dugu hitzik esan, aitzitik, endodiglosiaz: ez zaharraz eta ez berriagoaz (euskara batuaren eta euskalkien artean eraturik edo eratze bidean legokeenaz).**

tuaren eta euskalkien artean eraturik edo eratze bidean legokeenaz). Ez dugu hitzik esan, orobat, etorkizuneko zenbait eramolde sasi-diglosikoz, tartean bihar edo etzi, ingelesaren aurrez aurre, izan dezakegunaz. Lionel Jolyk argiro esan duenez merezi luke zinez, besterik uste izateko joera badugu ere maizegi, barne- edo endodiglosia horri ere erreparatzea<sup>27</sup>

Gure gaurko diglosia-esparrura mugatuz, egia al da ia batere diglosiarik gabe gelditu garela? Egia al da gero eta diglosia txikiagoa dugula oro har, euskara-erdareari dagokienean? Baiezko erantzuna izan da, garbi, ohargileen artean nagusi. Oinarrizko adostasun-giroa susmatzen da horretan. Dakidala inork ez du esan, iradoki ere ez, diglosia betean gaudenik 2011ko euskaldunok, ez oro har eta ez zenbait ingurumenetan. Are gutxiago esan du inork, gero eta diglosia beteagoan gaudenik. Askotxo izan dira, aitzitik, azalpen-txostenean esandakoaren alde agertu direnak. Taxatiboa izan da horretan Xabier Isasi: “XIX. mende(ko) eta XX. mende hasierako diglosia desagertu (egin) da euskaldun elebakarren multzoarekin batera”. J. M. Odriozolaren zenbait gogoeta bide horretan barrena doa: “Sistema soziolinguistiko zahar hartan (...) idatzizko hizkuntza-erabilera (...) ez zen funtsezko baldintza euskal sistema soziolinguistiko diglosiko hura bere hartan sortu eta birsortzeko. (...) azken hamarkadeako joera soziolinguistiko nagusiak konpartimentazio soziokulturalaren aurkako frogaz josita daude (...) garai bateko mundu euskaldunaren desintegrazioa”. M. J. Azurmendi ere argi mintzatu da diglosia-galeraz eta diglosiarik ezaz, era labur eta unibokoan: “diglosia gaia nahiko ezaguna (...) zait eta askotan aipatu dut nire lanetan (euskararekiko egungo egoera diglosikoa ez dela, baizik erredundantea dela, esanez)”. Are esplizituagoa agertu zaigu Lionel Joly, bere deskribapen zehatzean: “zaila dirudi EHren egoera diglosikoa dela aldarrikatzea. (...) diglosikoa izateko egoera batek iraunkorra izan behar du eta, alderantziz, oso aldakorra da gaur egungo Ehko egoera soziolinguistikoa (...) Beste aldetik, hizkuntzen arteko banaketa soziofuntzionala (diglosiaren) funtsezko ezaugarria da eta, kasu honetan ere, ezin da esan Ehko toki guztietan banaketa zorrotzik dagoenik”. Gogoratu, azkenik baina ez azken, Paula Kasaresen hitz argiok: “Alor zientifiko batean ari garela sinetsirik eta adiera zientifikoari loturik, gure egungo egoerari ezin zaio diglosia iritzi”. Bai: diglosiarik gabe gelditu gara ia. Gero eta diglosia txikiagoa dugu etxean.

Garrantzitsua da puntu hori. Gotzon Garateren 2000ko artikulua zirrargarria, eta haren pareko beste asko, gogoan hartzen badira aldaketa nabarmena dago hor: 180 graduko aldaketa ere bai, gure artean zenbait urtez entzun eta irakurri diren baieztapen borobilak kontuan izanik. Zia-boga horretan bat etorri gara guztiok, antza, oraingoan. Poztekoa da hori:

gai gara gure gizartearen soziolinguistikazko analisi teorikoetan oinarri-oinarrizko ezaugarririk adosteko. Ondorio eragingarria izan behar luke adostasun horrek plano teoriko-praktikoan eta are aplikazio xumeagoetan. Euskara indarberritu nahi badugu ezin ibil gaitezke aurrerantzean, aurreko hamarkadetan sarri ibili garen moduan, diagnostiko-orduan gaixotasuna batez ere *diglosia kaltegarriari* leporatuz. Berez ixten ari den zauria<sup>28</sup> (ia erabat orbandu dena, kasik seinalerik utzi gabe) nekez izan zitekeen orduan, eta are nekezago izan liteke orain, gure gaitz guztien zorne-iturri nagusi. Diglosia ez da aparteko bedeinkazioa, infernu beltza ere ez.

## 6. IRAUPEN-ITURRI IZAN AL LITEKE DIGLOSLIA?

Diglosiaren gaineko teoria nagusiak ez du, gai honi dagokionez, eztabaida handitarako lekurik uzten. Diglosiaren definizio jenerala (bai barne-diglosiarena eta bai kanpo-diglosiarena) argia da oso: mundu zabaleko gizarte-giro tradizioaletan (eta gure artean, behinolako Euskal herrian) bizi-bizirik egon da diglosia hori, mende luzez. Gauza iraunkorra izan da, hainbatean. H-erdaraz horniturik (inguraturik, estalirik) egonik ere bizirik iraun izan du euskaldungoak bere hizkuntzarekin: diglosia-giro horretan bizirik atera izan da L-euskara belaunez belaun, gizaldiz gizaldi eta menderik mende. Ez dago beraz dudarik, hala baitio teoriak eta hala erakutsi baitu praktikak: diglosiak badu, hainbatean, iraupen-indarrak. Ez da harritzekoa, beraz, eztabaidarik sortu ez izana gai horretaz, atzera begirako perspektiban. Orain arteko diglosiaren definiziozko iraukor-izate (erlatibo) hori ontzat eman dugu guztiok, alde edo moldez. Ohargile bakar batek ere ez du puntu hori auzipetan jarri eta izan da tartean, aldiz, oraindik diglosiaren iraupen-indar hori berariaz aipimarratu duenik. Odriozolaren hitzak dira hauek: “diglosiaren euskarria makulu sendoa izan da hiztun-herri baztertu askorentzat munduan, eta horri esker bizitasun etnolinguistikoaren jabe dira oraindik batzuk”. Egia da, beraz, belaunez belauneko iraupen-iturri izan litekeela (zehazkiago, orain arte hala izan dela) diglosia. Komentario-iruzkin biziak eskaini ditu, aitzitik, hurrengo galderak.

## 7. ORAIN ERE IZAN AL LITEKE DIGLOSLIA, IRAUPEN-ITURRI?

Etorkizunerako diglosiarik era al daiteke, hemen eta orain? Iraupen-iturri izan al liteke diglosia berri hori? Posible al da gizarte moderno-mendebal-dar-globalizatu honetan euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzional berririk eratu, behar adinako gizarte-adostasunez zabaldu eta belaunez

***Euskara  
indarberritu nahi  
badugu ezin ibil  
gaitzke  
aurrerantzean,  
aurreko  
hamarkadetan  
sarri ibili garen  
moduan,  
diagnostiko-  
orduan  
gaixotasuna  
batez ere diglosia  
kaltegarriari  
leporatuz.***

belauneko perspektiban egonkortzea? Posible al da hori, aldibereko konpartimentazio territorialaz? Posible al da hori, halakorik gabe? Zazpigarren puntu honetan sortu dira, ene ustez, eztabaida sakonenak. Hor agertu dira, besteetan baino zorrotzago, gure arteko ikuspegien diferentzia sakonak.

Baiezko iritzia agertua dut horretaz, behin baino gehiagotan: posible litzateke orain ere konpartimentazio soziofuntzionalik moldatzea, hein batean eta espazio demoterritorial jakinetan. Posible ezezik ezinbesteko ere badugu hori, ene ustez, belaunez belauneko transmisio-bidea bizirik daukan hiztun-elkarteari (zehazkiago: beren eguneroko jardunean nagusiki euskaraz bizi diren hiztun-talde eta harreman-sare trinkoei) bizirik eutsiko badiogu, lehenik eta behin. Hori galdutakoan ahuldu egingo dira, nabarmen, euskara indarberritzeko aukerak. BAEN edo HINBE eskalaren 6. graduko ekimenetik 7. edo 8. gradukora (eta horri dagokion astinaldi arras bortitzagora), “jaitsi” beharko dugu, ez “igo”, arnasmune (oro har, belaunez belauneko transmisio-gune beregain) horiek gabe. Esperientziak argi erakusten duenez mila bider errazagoa da Errezilen euskarari bizirik eustea, Abartzuzan edo Lezaunen euskararen erabilera biziberritu eta belaunez belaun aktibatzea baino. Konpartimentazio horri, une bateko trantsiziozko konpromiso itsua izango ez bada, belaunez belauneko iraupen-aukera eman behar zaio: diglosiazko eramolde berri bat.

Baiezko biribil gutxi entzun da hemen, zazpi ohargileen artean, puntu honi dagokionez<sup>29</sup> Aitzitik ezezko erantzuna eman du zenbait ohargilek, argi eta zorrotz. Halakoen ustean gure (eta beste askoren) ezaugarri argia izana da diglosia, baina joandako kontuak dira horiek. Orain ezin da horrelako moldaera soziolinguistikorik eratu. Ezinezkoa da hori, gizarte-moldaera berriak berekin dituen lehen ez bezalako baldintza-ezaugarriengatik. Zalantza handiak ditu M. J. Azurmendik, horrela, hemendik aurrerako diglosia egonkorraz: “konpartimentazioa oraindik ere iraunkorra gerta daitekeela, eta gertatu beharrekoa dela ere menpeko hizkuntza mantendu ahal izateko, (...) nire ustez oso zalantzazkoa (da) hemen eta egun (...)”. Are ezkorrago ageri da J. M. Odriozola: “gurea bezalako hiztun-herri menderatuen zoritxarrerako, estatu modernoaren komunikazio-osaerak eta botere-izaerak ez dute aukerarik ematen diglosia egonkorraren araberako baliozko glotopolitikarrik eratzeko. Oso oker ez banago, ustezko diglosia egonkorraren ilusioak gutxi du itxaropenetik eta gehiegi ameskeriatik”.

Kontrako jarrera hori erabatekoa da, itxuraz. Zergatik da diglosia ezinezko, orain eta gero? Erantzun labur baina kontzeptualki trinkoa, eta hizkuntza-soziologiaren ikuspegitik diharduena, eman du Odriozolak: “euskaldungoak jadanik galdua duelako orain dela hamarkada batzuk

arte eskualde batzuetan erroturik egon den euskarazko egitura sozioekonomikoaren izaera autonomo erlatiboa. Oinarri sozioekonomiko autonomo horrek ahalbideratu izan du euskal komunitate diglosikoaren iraupena. Errealitate sozioekonomiko eta kultural objektiboari darion auzia da diglosiaren fenomeno, errealitate horren arabera izaten delako mendeko hiztun-herrien iraupen-ahalmena”. Hots, ondo ulertu badiot a) bere buruaren autorregulazio-ahalmena galdu du euskal hiztun-elkarteak (zenbait eskualdek), erabat edo nagusiki, plano sozioekonomikoan; b) galera horrek, ezinbestean, hiztun-elkartearen belaunetz belauneko iraupen-ahalmena indargabetu du: diglosia zahar hura birrindu egin du, besteak beste; c) transformazio hori dela medio hiztun-elkarte hori (hiztun-herri osoaren zenbait eskualde giltzarri) ez da gai tradizioa eta modernitatea, lehena eta geroa, bere arauz eta (neurri batean) bere lehentasun-irizpideen arabera moldatzeko, eta d) ahalmen hori gabe ez dago aurrerantzean diglosiarik: “diglosia egonkorren ilusioak gutxi du itxaropenetik eta gehiegi ameskeriatik”. Labur bilduz: gauza bat (bihar-etzietako diglosia egonkorra) ezinezkoa da eta, oso bestelako neurriak hartzen ez badira plano sozioekonomikoan, beste bat (euskaldungoaren desagertzea) ezinbestekoa.

Jasotako ohar-irizpen kritikoen artean hori da, askogatik, gogorrena. Berez duen trinkotasun kontzeptualaz gainera zaila da, bestela ere, argudio-bide horri erantzun betea ematea: formulazio prognostikoetan ari gara hor eta, horrelakoetan, arrazoiak nork duen enpirikoki ezin frogatu liteke *a priori*. Bistan da, halere, prognostiko orok ez duela egiantz-maila bera, ez eta eskuarteko egingarritasun-maila bera. Erantzun beterik ezin emango bada ere saia gaitezen, beraz, kontua zertxobait argitzen. Badago motiborik, ene ustez, argudio hori bere horretan ez onartzeko. Horrela,

a) Zailtasunaren eta ezin(besteko)tasunaren arteko muga ez dago Odriozolaren planteamenduan argi. Ezin(besteko)tasunaren aldeze denez erakutsi egin beharko luke, gainerakook gure baieztapenekin egin behar izaten dugun moduan, ezin(besteko)tasun horren oinarri objektiboa (konstruktua teorikoaren funtsa eta ebidentzia enpirikoen testigantza praktikoa) non dagoen. Modernitatearen ondorio-multzo jakin hori zergatik den ezinbestekoa azaldu behar luke, hasteko. Ez du ordea halakorik egiten: esfera demografikoaren, ekonoteknikoaren eta politiko-operatiboaren alorreko indar-desoreka nabarmenek maizasko berekin dakartzaten transformazio soziokulturalak (tartean transetnizazioa eta translinguifikazioa) hartzen ditu abiaburu, zuzen ene ustez. Baina ez du erakusten, hori da kontua, ondorio horietarioko

**Possible litzateke orain ere konpartimentazio soziofuntzionalik moldatzea, hein batean eta espazio demoterritorial jakinetan. Possible ezezik ezinbesteko ere badugu hori, ene ustez, belaunez belauneko transmisio-bidea bizirik daukan hiztun-elkarteari (zehazkiago: beren eguneroko jardunean nagusiki euskaraz bizi diren hiztun-talde eta harreman-sare trinkoei) bizirik utsiko badiogu.**

batek zergatik guztia determinatzen duen eta, ezinbestean, gizarte osoa emaitza jakinera eramaten.

b) Azalpen hori ez dago hain oinarri sendoan eraikia: ez geroari begirako prognostikoan eta ez aitzinamendu sozioekonomikoak orain arte eragindako bilakaeran dabil oso zuzen. Horrela, eta gurera etorritz, ezinbestekotasunaren formulazio horrek ezin du azaldu Euskal herriaren azken berrehun urteko modernizazio-bide konkretuak, dokumentu-oinarriz ezagutzen dugunak, ezinbesteko paradigma lineal eta unifaktorialaren kontrako<sup>30</sup> hainbat lekukotza zergatik ageri duen. Zergatik galdu da euskara lehenago eta zabalago, ez beranduago eta mugatuago, modernizazioak gutxien erasandako eskualde-bailara-herrialdeetan (demagun Zaraitzu-Erronkarietan, Arabako Asparren gehienean eta Zuberoan)? Zergatik bizi izan da euskara 1800az geroztik osasuntsuago Gipuzkoako Beterri modernizatuan, Iruñerri tradizional eta tradiziozalean baino? Zergatik dago euskarazko bizimodu arrunta Azkoititik Zumaiara bitarteko Urola modernizatuan Nafarroa Beherean baino nabarmenki biziago? Modernizazio ekonoteknikoa (urbanizazioa eta industrializazioa lagun dituela) lehenago eta bortitza iritsitako lekuetan daukagu euskara, kasu horietan eta beste zenbaitetan, egungo egunean bizi(ago). Leku “osasuntsu” horietariko gehienetan ere ahul dago euskara: arrazoi handia du horretan Odriozolak. Baina justu ingurumen modernizatu horietan dago euskara, oro har, indartsuen eta bizien. Gertakari nagusi hori salbuespentzat hartzea ez da egokia. Funtsezko gertakari soziala salbuespen moduan tratatzen duen teoria soziolinguistikoa ez da, mintzajardunaren gizarte-moldaera argitzea baldin badugu benetako xede, erakargarri.

c) Funtsean, hona nire iritzia, egia zati bat du Odriozolak berekin. Hizkuntza-soziologiaren aitzinamenduan saiatu nahi badugu inola ere gutxietsi behar ez dugun egia-zati ohargarria. Hiztun-elkarteen azterbide dinamiko-prognostikoetan inola ere alde batera utzi ezin litekeen horietariko: transformazio ekonoteknikoek eragin ukaezina dute hiztun-elkarteen geroan. Egia zati ez da, ordea, egia osoa. Mintzajardunaren giza arteko moldaeran eragiten, eta horrenbestez hiztun-talde horren belaunez belauneko transmisio-bidean interbenitzen, duen faktorea ez da hori bakarrik: faktore demografikoak, soziokulturalak eta politiko-operatiboak ere oso kontuan hartu behar dira, ekonoteknikoek gainera, koadro osatu eta orekatua egin ahal izateko. Hori falta zaio batetik, Odriozolaren goiko azalpen zorrotz horri.

d) Hori bakarrik ez: faktore horien arteko lotura-harremanak ez dira unilateral hutsak. Ez da atzo goizekoa Max Weber-ek, XIX.

mendeko materialismo dialektiko klasikoaren kausa-ondoriozko esplikazio-lerro ezaguna itzulipurdikatuz hainbatean, egindako ekarpena: demagun 1905eko saioa, etika protestanteaz eta kapitalismoaren izpirituz ziharduena. Oinegitura sozioekonomikoak gainegitura soziokulturalean eragin dezakeen (eta maiz asko eragiten duen) bezala, alderantzizkoa ere egia dela erakutsi zuen Weber-ek: gizakion uste-aburu-sinesmenek ezin ukatuzko indar-ahalmena dute gizarte osoaren jarduera sozioekonomikoan (eta horren bide-lagun diren botere-harremanetan) eragiteko. Beste hitzetan esanik, Ak Bn eragiten duen bezala Bk ere An eragin dezake eta, hainbatean, eragiten du. Horrexegatik dugu euskaldunok eta mundu zabal-eko beste hainbat hiztun-herri beregainek, mila arazo eta mila kezka-biderekin batera, itxaropenerako oinarri razionalik ere.

Guztia ez da, zorionez, transformazio-bide lineal eta unifaktoriala. Konplikatuagoa eta konplexuagoa da etorkizuna: guri dagokigu konplexutasun horretaz jabetzea eta, horren baitan, irtenbide argi, baliagarri eta gizabidezkoa aurkitzea. Diglosia berri baten moldaera lanabes egokia izan liteke horretarako: ez bakarra baina bai, ene ustez, beharrezkoa. Jarraipen-iturri izan liteke, kontrakorik frogatzen ez den artean, diglosia berri hori. Jarraipen hori, berriz, lehentasun bizia du euskal hiztun-elkarteak XXI. mendean bizirik aterako bada. Euskara jaun eta jabe sentituko den ingurumen trinkoak, menderik mendeko mintzamoldeari eusten diotelarik inork xaxatu eta aztoratuko ez dituenak (nahiz eta, arnasmunetik kanpora bereziki, hainbat jardun-gune eta harreman-saretan erdaraz jardungo den) ez da *a priori* baztertzea komeni. Surtan jartzean jakiten da, honetan ere, nolakoa den eltzea. Horrek ez du, aurrerago azalduko denez, arnasmunetatik kanpora besoak tolestaturik egon behar denik esan nahi. Arnasmuneei berariazko atentzioa eta esfortzua (esfortzu intelektuala hasteko, eta emozionala hurren, bestelako korolarioetara pasa aurretik) zor zaiela esan nahi du horrek.

## 8. ZEIN ETORKIZUN DUGU PROBABLEENA, a) EZ BADA?

I

Linguogenesiarena alde batera utzirik euskaldungoak, hiztun-elkarte eta hiztun-herri gisa, hiruzpalau belaunaldiko perspektiban hiru aukera dituela esan da azalpen-txostenean: labur bilduz

- a)  $K \rightarrow B = K$ ,
- b)  $K \rightarrow B = B$  eta
- c)  $K \rightarrow B = (K + B)$

**Oinegitura  
sozioekonomikoak  
gainegitura  
soziokulturalean  
eragin dezakeen  
(eta maiz asko  
eragiten duen)  
bezala,  
alderantzizkoa  
ere egia dela  
erakutsi zuen  
Weber-ek:  
gizakion uste-  
aburu-sinesmenek  
ezin ukatuzko  
indar-ahalmena  
dute gizarte  
osoaren jarduera  
sozioekonomikoan  
(eta horren  
bidelagun diren  
botere-  
harremanetan)  
eragiteko. Beste  
hitzetan esanik,  
Ak Bn eragiten  
duen bezala Bk  
ere An eragin  
dezake eta,  
hainbatetan,  
eragiten du.**

Hiru bide horietatik euskara galtzea esan nahi du lehenengoak (K hizkuntza bakarrik egingo da Euskal herrian hemendik hiruzpalau belaunaldira). Gure artean erdara (erdara guztiak) galtzea eta euskara zeharo nagusitzea esan nahi du bigarren aukerabideak. Azkenik, eta hor eman nahi izan zaio diglosia berriari lekua, K eta B (ez K edo B bakarrik) egingo da etorkizun horretan. Garbi esan dut hiru eszenario horietatik oso-oso inprobablea, begien bistako etorkizunean zeharo eskuragaitza, dela lehenengoa. Euskarari bizirik eta hainbateko osasunez eutsi nahi badiogu hirugarren formula bakarrik dugu, hortaz, eskueran. Zer esan dute zazpi ohargileek etorkizun-aukera horietaz? Julen Arexolaleiba eta Jose Manuel Odriozola izan dira, oker ez banago, zezen horri adarretatik estuen heldu diotenak. Julen Arexolaleibaren esanean “egungoa baino bidezidor zabalagoa behar dugu konpartimentazio sozio-funtzionalean ( $K \rightarrow B = K + B$  eskeman den-denok bai) ahalik eta garatuen bizitzeko gure identitate euskaldun eleaniztuna”. Oraingoa baino euskararen aldekoago den konpartimentazioa behar da, euskara bizirik aterako bada. Baina elebitasun soziofuntzionalki (eta agian, hori ez du ordea zehazki esan, territorialki) konpartimentatuaren asmoa bidezkoa iruditzen zaio Juleni<sup>31</sup>.

Joxe Manuel Odriozolak ez du uste, aldiz, hemen eta orain  $K \rightarrow B = (K + B)$  posible denik hiruzpalau belaunaldiko perspektiban. Bere ustez, irtenbide posible bakarrak  $K \rightarrow B = K$  eta  $K \rightarrow B = B$  dira. Hots, kanpoko K ala bertako B nagusituko da, erabat eta osorik. K edo B, bietako bat, hizkuntza bakar bihurtuko da lau bat belaunaldiren bueltan, ezinbestean: bientzako lekurik ez dago. Argi azaldu du honetan ere bere ikuspegia: “Estimatzekoa ere bada formulazio errealista hori (...) guztiarekin ere, ordea, (...) ez dago batere garbi erdibideko helburu zuhurra erakusten duen planteamendu errealista horren bideragarritasuna (...). Inpresioa dut (...) Mitxelenak eta euskaltzale askok gorroto duten formulazio “maximalista” ez ote den izango geratzen zaigun aterabide bakarra. (...) “muturreko” jarrera batek erdibidekoak baino bideragarritasun-aukera handiagoa duelakoan nago: (...) edo euskara hizkuntza hegemonikoa bihurtzen da lurralde osoan edo zatiren batean ala euskaldungoarenak egin du”.

Argi dago urrun gaudela bateragarria den planteamendu batetik. Babilteke ordea, guztiarekin ere, hain antitetikoa dirudien postura-bikote hori elkarren hain-hain aurkako ez izatea. Odriozolaren bukaerako esaldiatalak narama horretara: “euskara hizkuntza hegemonikoa (...) lurralde osoan edo zatiren batean”. *Zatiren batez* ari bagara, bistan da arnaguneen kontzeptutik ez gabiltzala hain urrun. Argitu gabe gelditu den puntua da hori, nolana ere. Gogoeta-saio hau ez da (asmorik ere ez zuen) puntu

horretan sakontzeko gai izan. Ez legoke gaizki, beste ale monografiko batean auzigai horri helduko balitzaio.

## 9. ZEIN ETORKIZUN-APUSTU DA MEREZI DUENA?

Arnasguneei lehentasunezko trataera eskainiko dien diglosiazko formulazioaren alde egin dut apustu. Horretaz dihardu azalpen-txostenaren azken atalak, bostgarrenak. Era guztietako erreakzioak jaso dira hortik. Lionel Jolyrentzat, oro har, positiboa izan da saioa: “hori da seguruenik (...) artikuluaeren ekarpen handiena maila teorikoaren ikuspuntutik: diglosiari buruzko eredu ezberdinak aztertu ondoren, aplikagarriena eta zientifikoena den definizio bat proposatzea. (...) Bostgarren atal honetan oso lan pedagogiko eta praktikoa (egin da)”.

Paula Kasares ere argia izan da bere epaian. Diglosia hitza gogoko ez badu ere bat etorri da, atal honetan, azalpen-txostenean egindako zenbait proposamenekin. Aparteko esfortzua egin du, gainera, *community fostering* deitzen dudan horren zenbait elementu giltzarri zehazteko. Konforme dago *home-family-neighborhood-community* konplexuaren lehentasunezko izaerarekin, eskola erantsiz errepertorio horretara. *Auzogintzarekin* ere bai. Bere ekarpen handiena, oso kontuan izatekoa, honako ideia parean dago:

a) Belaunaldi berrien euskarazko sozializazioak lehentasun osoa du. Ildo horretatik, familia bidezko hizkuntza-transmisioari ez ezik haur-gaztetxoaren harreman eszentrikoei ere arreta berezia eman beharko litzaieke. Hortik aurrera (pasarte osoan) esaten duen gehiena ere ekarpen handi eta kontuan hartzekoa da.

b) Hizkuntza-politikak eta plangintzak zein arlotan ez ditu baliabide eta indarrak xahutu behar? Zein arlok ez digu kezkarik eman behar erdarak nagusi badira ere? Bere hitzetan, “erabilera-esparru funtsezkoen identifikazioa, horietan gertatzen diren harreman edo elkarreraginen maiztasunaren (edota) estutasunaren arabera egitea proposatuko nuke, eta ez behe/goi, informalitate/formalitate, mintzatua/ idatzia dikotomien arabera”. Gutxitan irakurri ohi da, euskaltzale-munduan, hain gogoeta hotz eta pisuzkorik. Konturatu, inplizituki bederen hizkuntza biren esparru alternatiboak zedarritzen ari dela hor Kasares. Espazio soziofuntzional osoaren tarta-zati ohargarria atxiki nahi dio euskarari: modernitatearen kale-bizitza eta aurrerapen teknologikoak berekin izango dituen tarta-zatia. Badirudi, halakorik esaten ez badu ere espresuki, azalpen-txosteneko proposamena horren kontra legokeen beldurrik-edo duela Paulak bere baitan.

***Euskal hiztun-  
elkarteak, eskola  
bidez lortu duen  
buru-jasotze  
ohargarria hor  
egonik ere EAEn  
(ahulago dabil  
Nafarroan eta  
are ahulago  
Iparraldean),  
jardun-gune jaso-  
formaletan ez  
baina eguneroko  
bizimodu arrunt,  
errepikakor,  
masibo eta  
informal  
horretan ageri  
du, hemen eta  
orain, atzerakada  
nagusia. Nagusia,  
ez bakarria. Etxe-  
auzo-lagunarte  
multzoa eta  
hurbileko  
bizimodua  
konfiguratzeko  
duten jardun-  
gune,  
harreman-sare  
eta era askotako  
prozeduretan  
dauka  
euskarazko bizi  
nahi eta ezinak  
bere lehiakide  
indartsuena.***

Bere kasuan susmoa izan litekeena desadostasun argia da Maria Jose Azurmendiren erantzunean. M. J. Azurmendi ez dago, hasteko, arnaguneen irtenbidearekin konforme: “konpartimentazio demolinguistikoa eta demolurraldezkoa (...) ezinezkoa izateaz gain, baita ere euskararekiko izango litzateke ez salbazio bidea (...) baizik, alderantziz, galbidea”. Honela osatzen du bere gogoeta, eta hor lotzen dut bere azalpena Paula Kasaresen susmo posiblearekin: “Nik ondo ulertu badut, Zalbidek ematen d(...)-uen gomendioa (...) (HINBERen, RLSren) azken-aurreko azpi-etapetan gelditze(a) da, “governmental operations at higher and nationwide levels” azken azpi-etapara iritsi gabe”. Hirutako bat: azaldu nahi nuena ez dut ondo azaldu, zenbait ohargilek ez du nik esandakoa ondo ulertu edo biak batera. Ez naiz esaten hasiko, hiru aukera horietatik zein den itxurazkoena. Gauza batzuk enpirikoki frogatu litezke, dena den: ez txosten honetan eta ez gainerakoetan idatzi dut inoiz Maria Josek ulertu omen didana<sup>32</sup>. Aspaldiko urteotan esaten ari naizena, funtsaren funtsean<sup>33</sup>, honako hau da:

a) Euskal hiztun-elkarteak, eskola bidez lortu duen buru-jasotze ohargarria hor egonik ere EAEn (ahulago dabil Nafarroan eta are ahulago Iparraldean), jardun-gune jaso-formaletan ez baina eguneroko bizimodu arrunt, errepikakor, masibo eta informal horretan ageri du, hemen eta orain, atzerakada nagusia. Nagusia, ez bakarria. *Etxe-auzo-lagunarte* multzoan eta hurbileko bizimodua konfiguratzeko duten jardun-gune, harreman-sare eta era askotako prozeduretan dauka euskarazko bizi nahi eta ezinak bere lehiakide indartsuena. Donostiako Kursaalaren urtean hamar-hamabost egunez euskarak presentzia duin eta ahalik zabalena eskuratzeko ez dio batera kalterik egingo hiztun-elkartearen jarraipen-asmoari, baina egunean eguneko jarduna konfiguratzeko duten solaskidetza-sare, rol-harreman eta interakzio berbal etengabeen ondoan txikia da zinez.

b) Bodegatik (jardun-gune, rol-harreman, adierazbide eta situazio-estilo informal-intimo masibo eta errepikakorren alorretik) ur gehiago sartzen ari zaio *gaur* euskaldungoari, teilatutik (goi-mailako, aldi behingo eta partaide gutxiko interakzioen alorretik) baino. Ez dut uste ohargile bakar batek begien bistako ebidentzia hori ukatu duenik bere kritika-ohar jantzian. Aitzitik, badut motiborik uste izateko horretan eta beste hainbat puntutan, hitzak hitz eta iritziak iritzi, bat gatzozela guztiok. Ohargile zenbaitek (Paula Kasaresek oso bereziki) espreski azpimarratu du halere aurrez aurreko jardueraren informal-arruntaren gertakari hori ez dela komeni estuegi lotzea.

c) Bodegatik ari zaigu ur gehiena sartzen eta gure begiak teilatura begira dauzkagu maiz<sup>34</sup> Funtsezkoa da, horregatik, euskalgintzaren alorreko lehentasun-eztabaida argi eta garbi planteatzea. Alde horretatik ezinbestekoa da (askotan azaldua dut hori eta bertara jo dezake horren berri izan nahi duenak<sup>35</sup>) hizkuntza indarberritzeko asmoz antolatzen den edozein ekimen luze-zabal aplikatu aurretik galdera honi erantzuten saiatzu behar dutela hizkuntza-soziologian aditu direnek (gainerakoei alferrik da halakorik eskatzea): zer neurritan lagun diezaioke ekimen batek “hemen eta orain bizirik eta aktibo” diharduen euskaldungoari belaunez belauneko perspektiban bizirik eta aktibo jarraitzen, eusten eta garatzen?

d) Hizkuntzari bizirik eutsiko badiogu, lehentasunezko atentzioa zor diegu ama-hizkuntza (eta, beste maila batean, eskolari eskerrak eskuratutako L2-euskara) belaunez belaun transmititzea bermatzen duten lekuei: hasi haurren eta neska-mutilen sozializazio-gune ukaezin diren familia-auzo-lagunarte hurbilei eta, goraxeagoko perspektiban, bereziki (baina ez soilik) arnaguneei eta, oro har, euskaldunok euskaldunokin maiz eta sendo euskaraz jarduteko aukera faktikoa (zenbaitetan komenentzia, inoiz beharra) pizten duten harreman-sareei: hitzekoei eta idatzizkoei, aurrez aurrekoei eta, teknologia berriak lagun, arartekodunei. Gizartearen bilakaera globalean eragile ohargarri diren prozedurei (tartean, perspektiba makrora itzuliz begiak, hainbat transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatibori) lehentasunezko atentzioa zor diegu orobat. Ezin gara goi-mailako plano horretan bakarrik mugitu, ordea.

e) Lehentasuna lehentasun da, hemen eta nonahi. Lehentasunezko lan-esparruak ezin dira geroko utzi (“horiek oraindik moldatzen baitituk/n euskaraz, nolarebait”). Lehentasunik gabeko giza ekimen kolektibo eta deliberatuki antolaturik ez da munduan. Har dezagun, ehunka gehiagoren artean, adibide ezagun bat. Bizi oso, aberats eta amaigabearen aldekoak dira medikuak: izan litekeen bizirik beteenaren, osasuntsuenaren aldeko. Egoera delikatuetan hori baino zuhurrago eta asmo-apalago jokatu behar izaten dute ordea. Torniketean egin behar denean torniketean egiten diote odolusten ari den eriarri, horren ondorioz besoa edo hanka anputatu beharra gerta liteke ere gero. Kontua ez da besoa anputatzearen aldeko denik medikua edo erizaina, torniketerik gabe momentutik momentura odolusten ari dela eria eta, odolgaltze larri horri alto ematen ez bazaio, hiltzeko arrisku handia duela berekin. Torniketeak du, une horretan, lehentasuna.

**Bodegatik (jardun-gune, rol-harreman, adierazbide eta situazio-estilo informal-intimo masibo eta errepikakorren alorretik) ur gehiago sartzen ari zaio gaur euskaldungoari, teilatutik (goimailako, aldian behingo eta partaide gutxiko interakzioen alorretik) baino.**

f) Belaunez belauneko hizkuntza-transmisioaren ikuspegitik euskara bizienik dagoen leku, jardun-gune, rol-harreman eta harreman-sareetan lehentasunezko planak aplikatzeak ez du zerikusirik “gorago”ko asmoei atea ixtearekin. Oker dabil hori uste duena. Hiltzeko zorian dagoen eriarri bizirik eustea lehentasunezko eginbeharra da, hori da guztia. Ez dago adibide bakar bat gure historia ezagunean, plano kolektiboan eta belaunez belauneko perspektiban euskara zeharo galdu delarik berriro (eta belaunez belauneko perspektiba horretan) biziberritu denik.

g) *Lehentasun* eta *esklusibotasun* hitzak ez dira sinonimo. Lehentasuna hiztun gehienek beren bizi-denbora gehienez beste hiztunekin hizketan (edo, gero eta maizago baina nabarmenki bakanago, elkar-idazketan) pasatzen duten jardun-guneei, harreman-sareei eta situazioei aitortu behar zaie. Baita horiei guztiei dagozkien adierazbide, zabalero eta estiloerik ere. Horretan guztian zentratzeak heldutasun teorikoa eta seriotasun exekutiboa adierazten du, ezer erakustekotan. Ez, inola ere, “goragoko xede-asmoei” uko egitea. Ba ote dago asmo gorenagorik, euskara indarberritzeko saio osoaren altzoan, euskaldungoa osatzen duen hiztun-elkarteari, bere hiztun-taldee eta harreman-sareei, ahalik eta zabalen eta ahalik eta trinkoen euskaraz egin dezaten laguntzea baino?

h) Arnasguneak dira, askogatik, gaur-biharretan helburu horri ondoen erantzun diezaioketen ingurumen demoterritorialak. Duten osaera demografikoak (euskaltasun-dentsitatea eta, bereziki, kontzentrazioa), aurrez aurreko interakzio informalerako eskaintzen duten aukera praktikoak, euskaldun (gainerakoak baino euskaldunago) izatearen kontzientzia kontrastatuak eta euskaraz (hitzez eta, belaunaldi gazteetan, nabarmenki, baita idatziz) ere jarduteko gaitasun handiagoak lehentasunezko ekimen sendoagoetarako kandidato natural bihurtzen ditu hiztun-talde eta harreman-sare horiek. Hori da esan nahi izan dudana: ez gutxiago eta ez gehiago.

Distantziak markatu ditu argi, bederatzigarren puntu honetan ere, Joxe Manuel Odriozolak. Diglosiazko etorkizunaren alde ez du apustu egitea merezi, bere ustez. Bere ustez iraupen partzialaren, eutanasiaren eta gutxieneko duintasunik gabeko bizitzaren aldeko apustua da hori. Bi oharrez erantzungo diot, lehendik esandakoak errepikatu gabe, bere objektzio-ardatzari:

a) Nahi baino ilunago gertatu zait *iraupen partzialaz* eta *gutxieneko duintasunik ezaz* dioen kontua, diglosiazko edozein irtenbide *per se* gaitzetsiz. Baliteke Joxe Manuel Odriozolaren hitzak gaizki ulertu

izana, eta hala bada barkamena eskatzen diot. Ez dut uste, nolanahi ere, kontzeptu horiek hola-hola bateratzerik dagoenik. *Iraupen partziala* eta *gutxieneko duintasunik gabe bizitzea* ez dira, urrundik ere, gauza bera. Iraupen partziala iraupena da: bizia, ez heriotza. Besamotzak bizirik daude eta ez dago frogatua besobikook baino lehenago hiltzen direnik. Ez eta duintasunik gabeak direnik. Enfoke-arazoa dago hor, nire ustez: “guztia edo ezer ez” *slogana* aski ezaguna dugu gure artean; bere zenbait ondorio ere bai. Badirudi iturburu horretatik datorrela diglosia eutanasiarekin nahastu nahia.

**b)** Hizkuntza *hegemonikoa*, berak hor darabilen irudia ondo jasotzen bada, H hizkuntza da. Kontuz ibili behar da *hegemonikotasun* hori eta hizkuntzaren (hiztun-elkartearen) *bizitasuna* nahastearekin: bizitza soziala, eguneroko bizimodu arrunta, Lk okupatzen du nagusiki, ez Hk, diglosia-giro gehienetan. Hegemonikoa zen frantsesa Ingalaterran, berrehun bat urtez, aginte-esparruan; baina L ingelesa atera zen garaile. Hegemonikoa da aleman batua Suitzan, goi-mailako jarduera idatzizko gehienetan, baina *Schwiizertütsch* arruntak du kalean bizi-indarra. Hori ez da iritzi hutsa, oinarrizko konstatazioa baizik. Alde horretatik, nagusiki L funtzioetan zentratu egoteak ezer gutxi du duintasun faltatik. Sukalde-zokondora, taberna-zulora eta berritsuketa bizian diharduten solaskide-taldeetara ezin dugu euskara (bir)bidali. Hala nahi izanik ere ezinezkoa genuke hori, hemen eta orain. Sukalde-zokoari, taberna-zuloari eta solaskide berritsuen jardueri ez genieke ordea, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena baldin badugu helburu, aparteko duintasun-*deficit* tatxarik gaineratu behar. Hor jokutzen da maiz, gizarte modernizatuotan ere, mintzajardunaren hainbat erabakizun. Berritri diot: litekeena da pasarte hau ondo ulertu ez izana eta Joxe Manuelek besterik esan nahi izana. Justu kontrakoa esan nahi du agian: hots, irlandararen kasua du agian buruan, “bakter-funtzio sinboliko” ez ari delarik. Hor ere kontuz ibili beharko genuke ordea. Irlandak ezer garbi baldin badauka, ohiko diglosiarik eza dauka. Ingelesa da han, *Gaeltacht* gero eta minorizatuagoan izan ezik, H eta L funtzioetan (bietan) jaun eta jabe.

## 10. BERAZ, ZER?

Amaitu dugu lana. Azalpen-txosten luzexka idatzi genuen hasieran (eta jendaurrean azaldu). Zazpi ohar-idazki jaso dira gero, beste horrenbeste aditurenak. Aztertu ditugu guztiak, eta patxadaz hausnartu. Azalpen-txostenean hainbat eskasia kontzeptual, idazkera ilun eta oker (mekano-

**Arnasguneak dira, askogatik, gaur-biharretan helburu horri ondoen erantzun diezaioketen ingurumen demoterritorialak. Duten osaera demografikoak (euskaltasun-dentsitatea eta, bereziki, kontzentrazioa), aurrez aurreko interakzio informalerako eskaintzen duten aukera praktikoak, euskaldun (gainera-koak baino euskaldunago) izatearen kontzientzia kontrastatuak eta euskaraz (hitzez eta, belaunaldi gazteetan, nabarmenki, baita idatziz) ere jarduteko gaitasun handiagoak lehenetsunezko ekimen sendoagoetarako kandidato natural bihurtzen ditu hitun-talde eta harreman-sare horiek. Hori da esan nahi izan dudana: ez gutxiago eta ez gehiago.**

grafiko eta bestelako) lokalizatzeko balio izan du bigarren irakurraldiak. Baita ohar kritikoen argi-ilunak zehazkiago baloratzeko ere. Lan luzea izan da hori guztia; eragingarria ere bai. Labur-labur azalduko dira, hemen, lan osoa amaitu ondoko azken sentiera-printzak.

a) Zazpi ohargileen ekarpenak kontrastatzen (beren artean konparatzen) saiatu naiz hainbatean. Luze hausnartu ditut guztiak eta, ondo edo gaizki, sistematizatu. Zer antzematen da sistematizatzeko horretatik? Gauza batzuetan aurrera egin dugula ikusten da argi. Diglosiaz ari garenean zertaz ari garen, eta zertaz ez, lehen baino ondotoz errazago uler dezakegu orain diskurtso soziolinguistikoan ari garenok. Diglosiaren gaineko adostasun terminologikora heldu gara, lehenik eta behin. Adostasun kontzeptualera ere bai, hainbatean. Gauza txikia irudituko zaio hori hainbati. Niri ez. Pozik nago zinez: egindako esfortzuak, horregatik bestegatik ez balitz ere, balio izan du.

b) Diglosiaren *purgatorio*az izan dugu mintzoa. Diglosiaren purgatorioaz, ez zeruaz eta ez *infernu*az. Eztabaida-giroa ekarri du horrek. Zeru-kontuetan murgiltzea baino mikatz-mingotsagoa da, berez, purgatorioaz jardun beharra. Neurri-izaera demografikoz, autorregulazio-ahalmen ekonoteknikoz eta politiko-operatiboz, konfigurazio soziokulturalez eta belaunetaz belauneko transmisio-gaitasunez nabarmen ahuldurik dagoen entitate etnokultural ororentzat ezinbestekoa da gazi-gezak eta gozo-mikatzak nahasian tratatzea. Mediku gehienek ere nahiago lukete, seguru asko, osasun beteko giza-kiak ikertu, gizajende sanoaren zernolakoaz idatzi eta kontsulta-lekuan pertsona osasuntsuak atenditu. Pertsona gaixoak atenditu behar izaten dituzte ordea behin eta berriro, eta gaixotasunaren sorburuez, bilakaerez eta onbideratzeko neurri posiblez jardun behar izaten dute hamarretik bederatzietan. Inork ez du esan beren lana, horregatik, merezimendu zientifikoz eta etekin sozialez apalagoa denik. Aitzitik: gaitzak erakusten digu argien, profesionalen eta are profanoen, osasunaren balioa eta hauskortasuna, iraupen-ahalmena eta gora-beherazko izaera zurrunbilotsua zein den bihurria. Bihurria eta aldakorra: faktore-aniztasun hori bere osoan hartzen duen medikuntza ez da, jakina, osasun beteaz diharduen ikerlerroa baino eskasago. Motiboa bistan dago: osasunaren eta gaitzaren, azken buruan biziaren eta heriotzaren, arteko muga-lerro lauso bihurri horretan doakigu guztioi bizia. Horregatik da medikuntza, gaixoez eta hildakoez arduratzen delarik ere, hain garrantzitsua. Horregatik da diglosia, hitz horrekin edo beste batekin,

gurea bezalako hitzun-elkarte txiki-erasanetan hain funtsezko eta hain zentral. Orain arte seguru; gero ere bai, ene ustez.

c) Amankomuneko kezka-sorta batekin, gure herriaren eta gure hizkuntzaren geroa dugularik ipar, jardun dugu guztiok eztabaidan. Bizi eta, aldi berean, ahalik eta objektiboen. Gogoeta-lan aurrez aurreko horren beharra badagoela uste izan dugu gehienok. Horrexegatik murgildu gara hain poz gutxi eta hain atsekabe ugari ekarri ohi duen lan honetan. Ez dago zertan harritu: demografikoki, hedadura territorialez eta espazio soziofuntzionalaz “bere leku seguru”rik ez duen, eta horregatik belaez belaezko perspektiban (ez berehala, baina bai bizpahiru belaunalditik aurrera) etorkizun argirik ez duen hitzun-herriak, bai eta bere burulangleek, normala da esfortzu sendorik egitea herio- edo kalte-arriskuak ebitatzeko eta hartara daramaten osasun-bideak aurkitzeko.

d) Ez gara geure zilborrari begira ari izan, diglosia-kontuon inguruan egunak eta asteak zurrupatu ditugularik. Alor honetan egiten ari garen saioa ez da, beste zenbaitentzat ere, alferlana. Mundu hobe baten amets zahar-betiereko baten alde ari gara. Handiak eta txikiak elkarrekin bizi ahal izango diren mundu gizatiarrago baten alde. Badakigu asko direla mundu zabalean, handi eta txiki, halako ametsik buruan dutenak. Ez da gure gai hau, seguru, XXI. mende-hasierako gizarte globalizatu krisidun honek bihotz-begietan duen kezkarik handiena. Bada ordea, eta ez dugu horretaz zertan lotsatu, aldibereko nortasun anizkoitzen paradigma modernoan bizilagun txikientzako kabia, *modus vivendi* duin-gutxienekoa, definitzeko saiotxo. Txikia eta apala, behin-behinekoa, kontrastatu eta, ebidentzia sendoagoen edo paradigma teoriko jasoagoen ildotik, hobetu beharrekoa. Ez gaitu horrek bereziki kezkatzen. Ibiliak erakutsiko du, honetan ere, oraingo saioak zer izan duen probetxuzko eta zer hobekizun. Geroak esan beza. ●

## BIBLIOGRAFIA

Deutsch, K. W., 1942: “The trend of european nationalism: the language aspect”, in *American Political Science Review* 36: 533-41. Erabilitako iturria Fishman ed. 1968, 598-606 or.

Fishman, Joshua A., (1966): “Language maintenance and language shift as a field of enquiry”, in Fishman J. A. ed., (1966) *Language Loyalty in the United States*.

— 1989 (jatorriz 1985koa): “The societal basis of the intergenerational continuity of additional languages”, in *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.

- 1991: *Reversing Language Shift*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 2002: “Diglossia and societal multilingualism: dimensions of similarity and difference”, in *IJSL* 157, pp. 93–100.
- Fishman J. A. ed., (1966): *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- 1968: *Readings in the sociology of language*. The Hage: Mouton.
- Garate, Gotzon (2000): “Euskal Herria elebidun”, in *JAKiN*, 2000ko azaro-abenduak, 121. zkia, 81-101 or.
- Goikoetxea, Juan Luis, 2003: Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian. Iker 13. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Plumb, John H., 1970: *The Death of the Past*. Boston, Houghton Mifflin.
- Zalbide, M., 1993: “Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz”, in *Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean. XII Congreso de Estudios Vascos, 281-90*. Gasteiz: Eusko Ikaskuntza.
- 2002: “Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?”, in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*. Donostia: EHIK.
- 2009: *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan*. UDALTOP Udaletako euskara-teknikarien I Topaketarako ponentzia).
- 2011a: *Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: baliotespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- 2011b: “Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan”, in *IKER*, 26, EUSKERA. Bilbo: Euskaltzaindia.

## OHARRAK

1. Gaurko gaiaren ikuspegitik periferikoago izateak ez du esan nahi, kontu horiek garrantzirik gabeak direnik. Aitzitik: ohar horietariko zenbaitek baluke, berez, BATen ale monografikoa osatzeko behar adina mami.
2. Paula Kasares izan dugu, askogatik, kezka-puntu horretan esplizituena: “ez dakit lehenaldi idealizatua ez ote duen Zalbidek buruan”. Horren arrastotik dabil Joxe Manuel Odriozolaren zenbait ekarpen. Julen Arexolaleibak “betiko arnagune errromantikoetan bizi diren Echave-Ansoategui” tarrez egindako aipamena ere ez dabil ikuspegi horretatik hain urrun.
3. Ikus John H. Plumb, 1970: *The Death of the Past*. Boston, Houghton Mifflin.
4. Azalpen-txosten honetan bertan argi aitortua daukat hori, aurreko beste hainbat idazkitan bezala.
5. Batez ere ele anitzekoetan: Europatik atera gabe hor ditugu, demagun, gainerakoan elkarren arras diferente diren Suitza eta Irlanda, Lituania edo Luxemburgo.
6. Adiera zehatz eta unibokoa du, nire (eta beste zenbaiten) idazlanetan, *ahuldu* hitzak. Ikus “Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?” (Zalbide, 2002).
7. Hor bakarrik ez: XX. mendeko soziologiak gizarte-berrikuntzaren alorrean deskribaturiko panorama jenerala zeharo okerra ez bada, modernitateak ez ditu ordura arteko langa-hesiak apurto edo gesaldu bakarrik egi(te)n. Langa-ezabatzaile izateaz gainera langa-sortzaile ere bada. Lehen ez bezalako langa-hesiak sortzen ari da modernizazioa; berriak

sortzen eta, inoiz, ahulduriko zaharrak indarberritzen. Deigarri da, alde horretatik, gerora begira hain zentratu egon nahi duen ikusmoldeak langa-sortze horretaz hitzik ez esatea.

8. Haur guztiak edo gehienak: immigrazio-kontuari bere lekua eta pisua aitortu behar zaio, Sorian eta nonahi.

9. Konplexu horren ahuldadea ez da berezkoa: hamarkada (zenbait kasutan, mende) luze-etako bilakaera demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboen eraginez iritsi da hori egungo egunean den bezalakoa izatera. Hurbileko konplexu horrek determinatzen du ordea zehazkien, argien eta (nire ustez) terapia-ikuspegitik aplikagarrien Zeraingo plazan herriko gazte guztiak euskaraz egitea beti (zehazkiago ia beti, hor ere bai baitira gaiaren, solaskidearen eta situazioaren arabera interferentziak, kode-aldatzeak eta kode-nahasteak) eta aldiz Elgetan, Alberto Telleriak jasotako datuak oker ez badaude, lehen baino bakanago. (Hurbilpen teoriko gisa ikus Zalbide 2009: *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan*. UDALTOP Udaletako euskara-teknikarien I Topaketarako ponentzia).

10. Ikus Karl W. Deutsch, 1942 (1968): *The Trend of European Nationalism. The Language Aspect*.

11. Izan da tartean, jakina, hitzez bide bat hobetsi baina egitez kontrako bidea hartu (behar izan) duenik: hor dugu Irlanda.

12. Bakarra edo, bakarra ez denean, *nation-* edo *state-building* xederako hizkuntza lehenetsia.

13. Are gehiago: 2011ko leihonetatik begira, 1937ra arteko kontaketa hura motx gelditu dela esan dezakezu. Ugaritu egin dira ordutik hona, ez murriztu, Europako nazio-hizkuntza orotarakoak.

14. Etxeko kontuei dagokienez frantses-gaztelanien aldeko mintzaldatze-joera (arrisku edo gertakari) indarrean dago gure arnasmuneetan (agian gehienetan): hots, euskarari eta euskaltasunari azken mende honetan belaunez belauneko jarraipen-garantia handiena eman dioten (eta orain ere, hoberik eratzten ez den artean, hala ematen dioten) ingurumenetan.

15. Gertakari hori ez da azken-azken orduan hasia. Orain dela mende-laurden burua jasotzen hasia zen Europako zenbait lekutan. Informazio tekniko ernagarriko ikus J. A. Fishman-en 1989ko "The societal basis of the intergenerational continuity of additional languages".

16. Litekeena da oso, han-hemen sortzen hasi diren konpatimentazio soziofuntzional berri horiei *diglosia* hitza ez aplikatzea. Izena gorabehera hor dago, ordea, izana: ingelesaren irrupzioaz diglosia molde berri baten ernamuina oratzen hasi da Europako zenbait estatu eta hiztun-elkartetan. Ingelesa partez bereganatzen ari den jardun-gune eta harreman-sare horiek ez dira (orain eta, halakorik begiz jo litekeen neurrian, etorkizun hurbil-ertainean) herrialdeon ama-hizkuntzaren (edo nazio-hizkuntza lehenetsiaren) belaunez belauneko transmisioa arriskuan jartzeko modukoak. Ez dago horren beldurrik. Ingelesaren *language spread* edo hedapenari kalte baino mesede gehiago ikusten diote gainera, oraingoz, bertako hiritar gehienek: bertako hizkuntzaren eta ingelesaren arteko *modus vivendi* (ez bietako baten *morendi*) ineditoen eszenatoki bihurtzen hasiak ditugu, horregatik, estatu-herriko.

17. Joxe Manuel Odriozolak ere, bere ohar nagusiak beste gaietan zentratu dituen arren, argi islatu du ikuspegi hori.

18. Gure artean ere bai, UZEIren garaitik gutxienez. Termino teknikoaren konnotaziozko neutraltasunaz, izen-izanen arteko biunibokotasunaz eta sinonimoak sailhesteko joeraz ikus Zalbide 1993. Hiperonimoek eta antonimoek terminologia teknikoan duten garrantziaz ere bada hor azalpenik.

19. Batetik *diglosia* erabiltzea eta bestetik *hizkuntza gutxituen diglosia* ez da ene ustez, orobat, aparteko irabazbidea: ohargile gehienek alde edo moldez gogorarazi digutenez, eta *language maintenance / language shift* fenomenoaz diharduen teoria soziolinguistikoko landuenak argi dioenez, diglosia-galeraren edo diglosiarik ezaren bidelagun da hizkuntza gutxituen elebitasun iragankorra, ez diglosiaren seinale, iragarle edo ondorio. Zer irabazten dugu, lagun zahar, esnari "ardo" eta ardoari "esne" esatearekin? Diglosia eta diglosia-galera (edo diglosiarik eza) adierazteko hitz bat eta bera erabiltzeak indargabetu egiten du gure lanketa-saio teorikoa. Kalte egiten dio horrek gure jardunari eta, nire ustez, luzera begira kalte nabarmena egiten dio euskalgintzari berari ere.

20. Bereak dira hitzok: “ados ez nago (...) egiten duen esplizitate horrekin (...). Horregatik proposatuko nuke “diglosia” gaiaren eztabaida honekin jarraitzea, eta zabaltzea ere beste zenbait termino teknikorekin lotuz, ikuspegi ezberdinak ere lotuz,.. beti ere euskararen etorkizunaren argitan”.

21. Mitxelenaren pasarte hori nola ulertzen dudan (errazen nola uler litekeen) esaten saiatu naiz azalpen-txostenean. Gehiegizko lizentzia iruditu zaio hori Paulari: “ausarta da oso hizkuntzalari handiak buruan zehatz-mehatz zer zuen ondorioztatzea. Anakronismo presentistan erortzeko arriskua du ariketa horrek”. Arrazoi du Paulak: interpretazio bat egin dut eta arrisku ukazina du horrek. Ez dut nolanihi jokatu, ordea: horretan ari naizela garbi aitortu dut, batetik, eta ez dut itsumustuan jardun, bestetik. Mitxelenaren obra behin eta berriro irakurria izateaz gainera aurrez aurreko harremana izana dut berarekin, 1977-1985 garaian. Hizkuntza/gizarte kontuaz sarri hitz egin genuen orduan, auzigai bat eta beste zela medio. Hala egin genuen autonomia-aurreko plangintza-batzordearen baitan, Oñatin bereziki. Hala egin genuen Euskararen Aholku batzorde sortuberrian, bertako kide ginelarik biok. Hala egin genuen Euskaltzaindiko zenbait bileratan eta hala, inoiz edo behin, HUISen bertan. Hori guztia dela medio gogoan dut orduko bere hainbat azalpen. Ez dut uste, horregatik, inferentzia ausartegiak egiten ibili naizenik txostenean: gogoan ditut Koldok orduan esanak. Inoren buruan zer dabilen ondorioztatzea ez da lan egokia. Hark benetan esandakoak isiltzea ere ez.

22. Fishman-ek berak inork baino argiago aitortua du hori: ikus, adibidez, 1991ko RLS.

23. Hona bere hitzak: “nik neuk ez daukat arazorik diglosiari buruz txostenean Zalbidek esaten dituen gauzak onartzeko”.

24. Honela dio Lionel Jolyk: “oso egokia da maila teorikoan (egindako) deskribapena”

25. Azalpen-txostenean esana dut dagoeneko, uste baino ahulagoa dela soziolinguistika iparramerikarrari egotzen zaion estatizismo-bekatuaren indarra. Mila buelta eta mila matiz erantsiko ditugu, baina leku berean amaituko dugu beti: hizkuntza-soziologia amerikar hori, eta Fishman bereziki, ditugu bigarren mundu-gerraz geroztik mintzaldaketa (*language shift* delakoa) unibertitate- eta ikerketa-mundura ekarri dutenak. Haiek jantzia da handiki-soinekoz, ez Calvet-ek eta ez bestek, *language maintenance and language shift as a field of inquiry*. Eta konstruktio teoriko hori, eguna baino argiago dagoenez, *dynamic* da erabat, ez *static*. Hots, neguan zamarra eta udan galtza motxak janzten dakienak ez dauka aparteko maniarik arroparekin. Unean uneko janzki egokienaz baliatzea bertute da, ez akats. Diglosiazko giroan bizi den zenbait hiztun-elkartek berekin omen duen konfliktu ohargabearena ez da, nire ustez, bereziki zuzena. Beren konfliktuaz konturatu gabe lasai asko (hots, alienaturik) bizi diren suitzarren aipamenak ez nau konbentzitzen. Norbait ondo bizi bada alferrik da harekin “benetan nola bizi zaren bazeneki”ka jardutea. Diglosia-giro argian bizi diren suitzar horiek ez dira ezjakin batzuk: ez hiztunak eta ez, Haas barne, gizarte diglosiko horri buruzko adituak. Etxeko eta kanpoko (Europako eta are munduko) berri guk bezain ondo dakite eta, beraz, beren egoera diglosikoa diglosiarik gabeko beste askorekin konpara dezakete.

26. Demagun behinolako gipuzkera-bizkaieraren artean, Mogel garaitik hasita, Debaibarren bederen meza-emankizun eta situazio-estilo goimailako-formal zenbaitetan arau-edo omen zena, edota, XX. mendean Bizkaiko bertsolaritzan inoiz agertutakoa.

27. Euskaltzaindiko azken sarrera-hitzaldia, uda honetan Maulen egina, buru-nekatze teoriko asko baino eragingarriago gertatu da alde horretatik. Teoria-bideari heldu nahi dionak hor du bestalde Jose Luis Goikoetxearen tesia, endo- eta exodiglosia iraziaz (eta bere garrantziaz). Zertxobait idatzirik dut nik ere, berrikitan, hizkuntza-aldaeren gaiaz (eskola-munduan zentratu halere) eta endodiglosiazko aldaera-hesi berri posibleen nondik norakoaz: ikus Zalbide 2011.

28. “Zauria” genuke hori, ontzat ezin eman litekeen tesia besterik gabe ontzat emango bagenu: diglosia menderik mendeko zornedun zauria izan dugulakoaz ari naiz. Hori baino ondotoxoz xeheago arakatu beharrak daude kontuak.

29. Baiezko borobil zehatzik ez du inork eman: bidebatezkoak izan dira adostasun-seinale gehienak. Lionel Jolyri “gogoeta proposamen interesgarria” iruditu zaio hori, “logikoak diren ondorioetara heltzen d(en)a”, nahiz eta xehetasunetan “gehiago landu beharko litzatekeen”. Xabier Isasik ere labur aipatu du puntu hori: bere laburrean, hori bai, “muinean bat” dator diglosiazko formulazio berritu bat hil ala biziko eginkizuna delakoaz. Beste bide batetik (diglosia terminoari uko eginez baina kontzeptuaren hainbat osagai nagusiri tinko eutsiz), “belaunaldi berrietako ahal den kide gehienak bertako hizkuntzaz sozializatzeko bide-aukerak sendotzea”z mintzo da Paula Kasares. Orobat “batzuetan hizkuntza txikiaren erabilera gizarte-arau bilakatzea”z edota “hizkuntza txikiak bere toki(txo)a eta aukerak izatea”z. Hots, konpartmentazio-bidea eta belaunez belauneko transmisio-bermea indartzeaz (hots: justu diglosia berrituaz lortu nahi dena lortzeaz).

30. Nahiago bada, “hemen eta orain itxuraz kontrako”.

31. Lionel Jolyren oharretan ere, zehaztapen espresurik egin ez badu ere,  $K \rightarrow B = K + B$  ondorio-emaitezaren aldeko erantzun modua irakurri uste dut.

32. Hor daude paperak, miraketan jarduteko astia eta gogoa duenarentzat. Paperetan idatzia aski ez balu hor legoke, bestalde, testigantza etengabea: 30 urtez “governmental operations at higher and nationwide levels” euskaraz eratzten, mamitzen eta aitzinatzen ibilia naiz, eta horretan dihardut orain ere. Ez inork beharturik, neure gogoz eta deliberamendu librez baizik. Maria Josek badaki hori eta gehiago: ez gara azken orduko ezagunak.

33. Azalpen zabal eta eguneratu samarra nahi duenak aski du, adibidez, honako liburu honetara jotzea: Zalbide 2011a. Ikus, bereziki, bertako azken kapitulua.

34. Bodega ez da teilatua baino garrantzi txikiagokoa, hiztun-elkarte baten autorregulazio-ahalmen soziokulturalari eustearen aldetik. Nork esan du, eta zertan oinarritzen da hori esateko, bertsolariek operako tenoreek baino garrantzi txikiagoa dutenik Euskal herrian?

35. Ikus, adibidez, *Fishman-en HINBE edo RLS* edota *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*